

# zeruko ARGIA



IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

## Iturri Bertsolaria

# \* Bizkaiko herri gehienetan jardun da \* Lopategiren maixu izan da

«Basarri»ren omenaldian erabaki zen bezala Balentin Enbeitari egingo zaio hurrengo gorazarrea. Ordurako uzten dugu honi egingo diogun elkarrizketa.

Ondo aukeratuak izan dira orain arteko guztiak. Baina jendeak askotan ez daki nor hurrengorako aukera. Jendeak ez bait ditu zenbait bertsolari behar bezala ezagutzen. Ezta berauen premiak ere. Hori gehiago gerta ez dadin zenbait bertsolariren berri emango dugu urtean zehar.

ITURRI bertsolariarekin hasi gara. Elbarri bait dago ia hiru urte hauetan hiru haurren guraso gaztea. Jakin dugunez ezin egin ahal izan zitzaion Gernikan agindu zitzaion omenaldia. Zarautzen diote egitekoa bertsolari gazteekin, Uztailan, ezere okerrik gertatzen ez bada. Auteskundeetan ere, jakin dugunez, hau geratu zen bigarren, Balentin Enbeitaren hurren.

—Nor bizi zarete baserrian?

—Nere ama eta senar-emazteok hiru haur txikirekin?

—Zenbat urte gaixorik?

—Urte bi eta erdi. Datorren Azaroaren 4an beteko dira hiru urte min hartu nuelarik.

—Min haundiak edukitzen al dituzu?

—Orain ez hainbeste. Baina min hartu nuenen itzalak, ikaragarriak. Inork ez zuen uste honela irtengo nuenik. Dena lotuta geratu nintzen. Ez nuen ezer mugitzen. Ezta ahorik ere. Orain ikusten duzenez behatzak eta besoak mugitzen ditut. Ondo ez baina, jateko ere moldatzen naiz. Barcelonan egin nituen sei hilabeteak on handia egin zidaten.

—Nola moldatzen zarete baserrian?

—Senideak etortzen zaizkit asko. Hoiak laguntzen didate erruz. Baina inor ez gaude lanerako. Ni ez naiz ganza ezertarako. Edo ohean edo txirringadun aulki hontan egoten naiz beti. Ama ere beti gaixorik. Gernikara goaz laster.

—Egunak luze joko dizu?

—Bai, asper asper egiten naiz. Horregatik nahi dut kalera joan. Han gehiago solastuko naiz edo jokoan edo lagunartean. Betiko pentsamentu goibel hauek naxteko egokiera gehiago izango dut.

—Segurotik edo jasotzen duzu zerbait?

—Orain dela sei hilabete hasi nintzen zerbait jasotzen. Baina hortarako hauzi gogorra jokatu behar izan nuen.

—Gaitzak eta ezbeharrak alde batera utzirik, noiz hasi zinen bertsotan?

—Hamabost urte baino lehenago. Balentin Enbeitarekin hasi nintzen. Honen aita, Kepa, «urretxindorra» ni mutikoa nintzela hil zen. Neuk eraman nuen honen hiletan lore-koroa. Zortzi edo hamar urte izango nituen.

—Asko ibili al zara bertsotan?


—Bai, asko ere asko. Gipuzkoan gutxi. Arrasaten, Motrikun, Eibarren, Deban, Zestuan. Barru alde- ra batez. Baina Bizkaian ia herri bat ez da izango. Herriz herri ibili naiz Bizkaia osoan.

—Diru asko atera al duzu bertsolaritzatik?

—Ezer gutxi. Gazteak deitzen ziguten, herriaren alde zerbait egin nahi zuten gazteek. Diru gutxi zuten hoiak. Guk ezin kendu dirurik. Geu beti Euskal Herriaren alde lanean ari ginenak izan eta nola dirua eskatu? beste horrenbeste egin nahi zutenei?

—Bertsolari al zen zure aita?

—Ez. Baina bertso asko zekien buruz. Anaia dut bertsolari. Aita zenak esatera ni baino hobea, bai-



na poztutzeagatik esan ohi zion. Gutxi ibiltzen da.

—Zu oraindik ibiltzen al zara?

—Ni ibili ez naiz ibiltzen. Ni eraman egiten naut. Bai, orain ere hiru edo lau herritatik deitu didate. Jarduten naiz oraindik apurtxo bat.

—Nola egin zinen bertsolari?

—Gogo handia nuen. Bertso zaharrak ikasten nituen. Balentin Enbeitarekin jarduten nintzen. Baina horretaz kanpora astero astero biltzen ginen Muxikako bertsolari guztiok tabernan. Gai bat jarri eta astero bertsoak idatzirik eraman behar izaten genituen. Gero dena bertan behera utzi behar izan genuen, debekatu egin bait ziguten biltzea.

—Bertsolari asko al zarete Muxikan?

## NON ZER

- JOERAK  
Trintxerpe ..... 3 garrenean
- IREKITASUNA  
Bujanda ..... 3 garrenean
- AZKEN ZERBAIT GEHIAGO, BUKA  
DEZAGUN  
Laspiur ..... 6 garrenean
- LUIS BUÑUEL (1)  
Unanue ..... 7 garrenean
- ORAINDIK ERE ERLIJIOAZ  
IDAZTEN?  
Arregi-Mujika ..... 11 garrenean

—Txapelketetan hartu izan al duzu parterik?

—Bai. Zortzi urtetan errezkan egin zen txapelketa Bizkaian. Urte batean Enbeita atera zen txapel-dun. Beste batean Ajuria. Lopategi, berriz, bitan geratu zen txapeldun.

—Kantatu al duzu behin ere Uztapiderekin?

—Bai, egin izan dut bertsotan Uztapiderekin. Oso lagunak gara biok eta biok gaude elbarri.

—Zer opa diozu zure lagun Uztapide zaharrari?

“Gogotik izan zera zu maitagarria. Naiz erri eta erbesten oso txalogarria. Bertsoz alaitu dezuz Euskal Erria. Berriz nai nuke ikusi zure eztarria”.

—Gipuzkoako beste inorekin jardun al zara?

—Natxituan jardun nintzen behin Basarri eta Lizasorekin. Baina ni batipat Bizkaian eta Bizkaikoe-kin aritu naiz. Balentin Enbeitarekin jardun naiz asko. Jai eta aste ibili izan naiz.

—Hurrengo omenaldia zure adiskide eta lagun zaharrarena dugu, Balentin Enbeitarena, alegia. Eskaini iozu bertso bat orduko ordez.

“Ainbat urtean ibilia da Nerekin kantatzen. Enbeita jauna-re nik biotzez maitatzen. Bere omenaldian gaude gu pentsatzen. Merezki dun gizon au ia deun jasotzen”.

—oOo—

—Enbeita aita semeak, Lopategi, Sardoy anaiak, gu bi anaiok... Zortzi edo hamarren bat bertsolari. Nik aurrera atera da Lopategi. Neregana etortzen zen ikastera ia iluntzero. Nik eraman nuen aurreneko aldiz plazara. Artean ez zuen inork ezagutzen. Entzute haundiko bat nahi zuten, baina nik oso ondo egiten zuela eta nerekin eraman nien. Ajangis edo Anjigis herrian jardun ginen biok. Donostiako txapelketara ere neuk lagundu nion aurrenekoan.

—Kanta iezu bertso bat Muxikako bertsolariei.

“Muxikan badira Ainbat bertsolari; Eta guztiengatik dankagu Enbeita ezaugarri. Haren frututik etorririkan gu gabiltz herririk herri. Baina eskerrak eman bearra nola dankagun berari”.

Ezin gehiago nekaraziko zaitugu, Kepa. Ea zure omenaldi haundi hori nozbait ikusten dugun. Aurrera doala uste dugu Zarauzkoa. Merezki duzu. Zorretan dago zurekin Euskal Herria. Hamaika ibili eta jardun egin duzu utsaren truke herriagatik. Ez zaduka ahazturik.

ERRIALDE

# EUSKAL KIROLAK

## Aizkolari zaharrak

### MEÑDE ONEN ASIERA

Aldaketa aundi bat gertatzen asten da mende onen asieran Euskal Errian. Industria sortzen da. Jendea, berriz, lantokia dagoen ondora jeisten da baserrietatik bizitzera. Kalera jetxi arren euskalduna da eta euskal kirolenganako zalatasuna du barruan.

Festetan eta, aizkolaririk, arrijasotzailek eta idi-demarik onenak ikusi nahi izaten ditu. Diru gehitxeago du eskuartean ere kirol eta joko ausk ikusteko.

1903garren urtean eraikitzen dira Tolosako, Donostiako, Azpeitiako eta Eibarko zezenplazak. Baina zezenfestak baino korrikalari, aizkolari, arrijasotze, ahari joko, ididema eta abar gehiago izaten dira plaza oietan.

Bereko joera oni su aundia eman zion abertzaletasunak. Izkuntzari, ohiturei eta euskal-jolasei indar aundia eman bait zion.


Orduan sortu ziren euskal kirolari trebeak. Denetan aundiena "Santa Ageda".

### SANTA AGEDA

Pedro Maria Otaño Ezeiza, Beizamako "Santa Ageda" baserrian jaio zen, 1870garren Otsailaren 11an.

"Santa Ageda" luzea bezain gogorra zen. Luzean 1,85 neurtzen zuten. Aizkolari ez ezik sega-ari eta probalari ere bazen. Orretaz gainera amaika seme-alaben aita zen.

1893garrenean jokatu zuen izen pisika bat zuen lehenengo apustua. Azpeitiako Agirretxe zuen aurka. Andik bi urtetara Azkoitiako "Maketo" izenekoaren aurka jokatu zuen.



Pedro Maria Otaño

1896garrenean jokatu zuen beste apustu sonatu bat Errezilko "Garate Mutilzarraren" aurka. Azpeitian jokatu zuten. 60 ontzako zortzina enbor moztu behar zituzten. Berrogei minutu azpitik ebaki zituen "Santa Ageda" irabazle geratu. Euskal Erriko aizkolaririk

onenaren sonak artu zituen apustua irabaziez geroztik.

Jose Martin Goenaga "Atxunberria"ren aurka jokatu zuen berriro Zumarragako Euskal jaietan. "Santa Ageda" geratu zen denen artean txapeldun. 1900garrenean ere beratu geratu zen txapeldun Zumaiako euskal jaietan.

Iru aldiz jokatu zion Atxunberriak Santa Agedari urte beretan, baina alferrik. Beti "Santa Ageda" ateratzen zen irabazle.

Ez zuen Atxunberriak, ordea, behin ere etsitzen. Tolosako zezenplazan jokatu zion berriro. Kanako lau enbor moztu behar zituzten. Baina agintzen zutenek ez zuten dirurik jokatzen utzi, enbor bat ustela bait zen. Alere "Santa Ageda" atera zen garaile.

Baina egiazko joko 1903garren Abenduaren 26an Azpeitiako zezenplazan jokatu zutena zen. Bost milatik gora izan ziren plazara sartuak. 20.000 erreale (gaurko milioi erdia), jokatzen ziren jokoa. Trabesean ere izugarri jokatu zen.

Dirua "Santa Agedaren" alde atera zen. Asieran aurretik jardun zen baina azkenerako ikaragarri moteldurik "Atxunberriak" irabazi zion. Bukatu baino lehen erretiratu zen.

Urte pare batean ez zuen gehiago aizkoran jokatu. Baina berriro asi zen poliki poliki eta emen jokatzen. Baita marka ederrik utzi ere egin zigun. Nagusi ibili zen amarren bat urtetan.

### ATXUNBERRIA

Jose Martin Goenaga Odriozola "Atxunberria" Azpeitiako Oñatzen jaio zen. 1,90 neurtzen zituen luzean. Onen markarik aundiena kanako lau enbor 64 minututan ebakitzea izan zen. Zintzoa izan zen gizon bezala.



Jose Martin Goenaga "Atxunberria"

### KEIXETA

Jose Aranburu "Keixeta" Urrestillan jaio zen 1881garre-

nean. 31 apustutan atera zen irabazle. Garai guztietako aizkolaririk onena bezala artzen da. Ogeita amaika urte arte ez zen plazara azaldu, basagizonen artean jokatu ohi zituen bere apustuak. Ona bertsolariak nola goraiatzatzen dizkigun "Keixetaren" famak.

### - I -

Altz-errekako seme jatorra degu Jose Aranburu, urtietan da aurreratua; berrogei ta host inguru; berren plazako mobimentua ondradu eta seguru, seme-alabak ondo jartzeko esperantza izango du.

### - II -

Jose izena duen bezala izen goitiya Keixeta tranparik gabe etxeratua millaka zenbait pezeta; fin jokatua danak dirala letu genduan gazeta, gizon jatorrik ez det mendratzen pake-zafia naiz-eta.

### - III -

Jokatzailiak ez gero artu begitan edo hurutan, erriyak berak irabazten du makiña bat sentidutan; bat biren kontra jokatua da gutxiyenan irutan modu ortako plaza-gizona ez da pagatzen dirutan.

LAPATX

bazkari onaren zainpargarria  
eta txarraren estalgarria

LA CASA  
DEL CAFE  
Juan Jirondo

San Marzial, 19 - Urrut. 413801  
Donostia

# Bertso Berriak

## Seta Gaiztoa

- 1 -

Pena aundi bat sartua daukat biotzaren barruraño, setak ekarri gaitula ia izkuntza ondatzeraño. Jakin bezate aurtxo txikitik aitonik zargeneraño setak uztea ohea dala euskera galtzea baño.

- 2 -

O, Euskalerrri biotzekoal zugana nator kantuan, ia pixka bat lasaitzen naizen zedozer esandakuan. Kezka batekin nabil neroni etxean eta kanpuan, gu euskaldunok era onetan zeinek ipini gaituan.

- 3 -

Deabruren bat buztan luzea sartu da gure tartean nai ezutuana gu euskaldunok ibiltzerikan pakean. Mundu triste au igaro bear dozenerdi bat urtean ta ale oiek daramazkigu burrukan anai artean.

- 4 -

Oso «txorrotzak» izango dira deabru orren adarrak, sakabanatu gaitu ederki guran euskaldun bakarrak. Perretxikuen gisa gaur nunnai sortzen zaizkigu batzarrak, alkarren aurka enpliatzeko al dira gure indarrak?

- 5 -

Bide txarretik goazela gu gaur ezin gertzake uka, «atxe» dalata anai guziok emen gabiltza muturka, gure etsaiak irriparezka esanaz «au dek au mauka», lau periodiku Euskalerrrian ta denak alkarren aurka.

- 6 -

Milla euskaldun dauden tokian daude milla oponiyo, baiña alare ez aserretu letra bat dala meriyo. Guk gai onetan joka dezagun gizonki eta seriyo, urak pasata presa egiteak eztualako baiyo.

- 7 -

«Atxe» zaleak zeratenak ta ta etzeratenak berdin; al dan guzia idatzi baiña ifiori eman gabe min. Nai dezutenak Zeruko Argian besteak berriz Goiz Argin. An edo emen neri berdin zait baiña pakean lan egin.

- 8 -

Atxekin edo atxerik gabe pakean ari gaitian al dan guzia beti idazten gure euskera maitian. Nik ondo dakit ezin dirala gauzak konpondu kolpian denboraz, noski, sartuko dira bai, urak beren tokian.

- 9 -

Ur zikiñean pozik egiten du deabruak arrantza ta euskari kendu nai dio lenbailen azken amasa. Ori gertatu baiño lenago berari moztu isatsa, ez dezan berak geiago nastu euskaldunaren baratza.

- 10 -

Zerbait idazten degunak gera ia bi milla euskaldun, atxekin edo atxerik gabe danok bear degu lagun. Askatasuna ta justizien alde beti gogor jardun ia onela erri zar au guk pixka bat moldatzen degun.

MATXAIN  
(Aiete)

### TRANSPORTES

# azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:

Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA

Telefonoak: 450313 eta 459723

Aptdo. 1381

Aptdo. 1381

# ACATE OPARIAK

GAI TA IRUDI POLITENAK

Victor Pradera, 2  
(Esquina Zubieta)

DONOSTI

# DEPURACION DE AGUAS S. A.

Ur lanetan eta zereginetan berezia edangarri, lantegiko eta igeritako urak gertutzeko zikindutako urak garbitzeko.

Urrut. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01  
Gordoniz, 44

BILBAO



# Afrikako berriak

## Legorteak herretako herriak

Sahara basamortuaren egoaldean dagoen eskualdean legorte izigarria gertatu da. Gaur egun, konta ezinekoak dira egoera horren ondorenak. Basamortuaren egoaldean dauden lehen lurraldeetan artzaintza nagusi da eta beheheragoan laborantza. Legorteak bata eta bestea ikutu ditu eta 5.257.00 km.² lurraldeetan bizi diren 23 milioi biztanle lur oheagoren bila jarri ditu. Legorteak ekarri duen gosea zabaldu egin da eta bere menpean erori dira abereak, umeak eta gizonak.

Senegal, Goiko Volta, Tchad, Mali, Mauritania eta Nijeriako bazterrak zigortu duen zorigaitzaren arrazoiak ez daude zeruan edo euri ezaren ondorenean bakarrik. Basamortuaren mugak zabalitzen ari direla dirudi eta maila honetan erantzunkizun handia dute lurralde aberastasunak kentzeko erabili diren bideak.

Algodoiaren zabalkuntzak zuzaitzen heriotza ekarri du. Laborantzan erabilitako gehiegizko mekanizazioak hain aberats ez ziren zenbait lurren agortzea ekarri du. Horrelakoak gertatuko zirela behin eta berriz esana zuten espezialistek eta ondorenak gaur ikusi daitezke hektarea askoko sailletan.

Ifaraldean, komertzio bideetan bertako artzaiak jarri nahirik neurritz kanpoko abere taldeak eukitzera beharturik, nekez berjaitzen zen larrea galduta egin da. Ondoren lur emankorrak urritu egin dira eta haren lekuan ondarra nagusitzen. Hau da basamortuaren aurrerapena deitzen dena eta azkeneko legorte horrek burutuko duena.

Zugaitzak legortzen ari dira. Gutxi batzuk erneko dira euri berriekin. Larrearekin berdin gertatuko da, nehorik ez bait daki hainbat aldiz erretutako azia eta beste hainbestetan eguzkipean erretakoari zer gertatuko zaion.

Heriotzak jo duen lur honetan ihes doazten abereak bukatzen dituzte geditzen diren larre sakabatuak eta gizonak botatzen dituzte azkeneko zugaitzak hiltzeko zorian dauden abereen gosea erdi asetzeko.

Urte gutxi batzuen barru horain utzitako lur hoiek basamortu bat osa dezakete. Atzo barazkiak, zugaitz aleak eta garia ugari ematen zuten lurrek, bihar sastrakea, ondarra eta arri koskorrek besterik ez dute emango.

Noren errua da hainbat gizonen gosea handia eta heriotza? Hoiak ez dira aberastu lur hoietan egin den gehiegikeriarekin. Urak zekarren indar ahulak gauzak nehurtzea eta geroa aseguratzea eskatzen zuen. Jakintza eta teknika maila hoietara iritxi bada ere kapitalismoa ez da gai izan behar bezala ondasun hoiek erabiltzeko. Eratu duen kolonizazioa eta neokolonizazioaren bidez herri osoak zapaldu ditu. Tuareg, Hausa, Pel eta beste etnietako famili osoak pobretasunetik jatekoa ez dagoen egoerara irarri dira.

Euri eza eta legorteak ez dira hainbat herrien egoera larriaren erantzule bakarrik.

## Txekoslovakia

# Okupazioaren aurka

Errusiako armadaren bidez Dubcek baztertu zutenetik, Jaroslav Sabata, soziologia irakaslea, peoi bezala lanean ari zen. Emezortzi urtekin Alderdi komunistakoa egin ze eta Pragako udaberrian Batzorde nagusiaren bazkide aukeratua izan zen.

Gaur sei urtetarako espetxean sartu dute eritzi eta informazio desegokiak agertu dituelako. Bere alaba eta bi semeak arrazoi berdinagatik espetxeratuak izan dira.

Sabataren egoera dela eta hainbat sozialista, komunista eta hainbat demokrataren alde zabalkunde bat egiten ari dira. Txekoslovakia egoera «onera» ekartzeak ondoren gogorrek ekarri ditu bertako abertzale eta demokrazi zaleentzat. Denok bat egin behar dugu atzerriko armada zapaltzailearen aurka, espetxeratuen askatasunaren alde, politiko arazoengatik hiri haundietan bizitzerik ez dutenen alde, lanik gabe gelditu diren alde, inprimatzeko eskubiderik gabe gelditu diren alde...

Denon beharra izango dute eslobakoarrek eta txekoaarrek bakoitza bere etorkizunaren jabe egiteko.

## Beljika

# Kaiako langileen borroka

Anvers eta Gand hirietako kai langileak garrantzi haundiko huelga bat egin berria dute. Ekintza honen garrantzia huelgak izan duen luzapenatik eta langileek sindikatoko bazkide izanarren sindikatoaren babesa jaso gabe irautetik dator.

Ekintza honen hasieratik oso asarre ziren sindikatoaren zuzendariak. Hauek nagusiengandik lortutako abantail batzuen ordez langileen aldetik pakea eskaini bait zieten nagusiei. Arazo hau ez da berria sindikato libreak dauden bazterretan eta langile hoiak irudipenean sindikatoak nagusi eta agintearen alde agertu dira. 4.000 langile hoiak jornalik gabe eta sindikatoaren laguntzarik gabe herritarren laguntzari esker iraun dute zortzi asteetan. Huelgan zeuden langileen alde nekazariak, mina gizonak, abeslariak, eta komertziantek bere herritarren laguntzari esker iraun dute zortzi asteetan. Huelgan zeuden langileen alde nekazariak, mina gizonak, abeslariak, eta komertziantek bere herritarren laguntzari esker iraun dute zortzi asteetan. Huelgan zeuden langileen alde nekazariak, mina gizonak, abeslariak, eta komertziantek bere herritarren laguntzari esker iraun dute zortzi asteetan.

Hala ere Europako Estatu librearen izena daramatenen industrietako langile mugimenduek badute zer pentsa eta nola jardun. Sindikatoen ukapenarekin langile mugimenduek ez dauka aurrera ekiterik baina sindikatoaren ukapena egiten denean mugimenduen zuzendariek ez dute gauzak lehen bezala jarraitzen dutela pentsatzerik eta beren despatxotetan lehen bezala jarraitzerik.

C.F.D.T.ko biltzarrean ez zitzaion arazo honerik buru egin. Dena dela arazo hor dago. Langileen espontaneismoa, ezker ezkerrekoen txoriburu-keria eta antzekoak aipatzearekin arazoak ez dira uxatzen.

Langileen ekintza berriak ukatu gabe hauen efikaziaren bideak aurkitu behar dira.

# D A B I D e t a G O L I A T

## GOLIAT

Agur Goliat. Haur batzuk garai hartan zuen arteko gertaera berriro kontatzeko eskatu didate. Eta ahal dela gaurkotua. Gaurregun biziko bazina bezalatsu.

Ez pentsa gero nolana hiko lana denik. Garai hartan bezalatsu, Goliat indartsu zaitugu. Zerorrek erabiltzen dituzu historiaren hariak, zerorrek ekonomiaren gurrupilak, zerorrek politikaren hegoak. Handia zaitugu betidanik. Handia jauntxo bezala bizi zinen garaian, handia industriaren itzalpean indartu zinen hartan, handia bankatze eta nazioz gairidiko indarrak eskura ahal izan dituzun une honetan.

Badira zagan sinesten ez dutenak; badira aintzakotzat hartzen ez zaituztenak, badira zure bizkar irri eta far egin nahirik dabilzenak, badira egungo Goliat indartsua une batetik bestera, istanpe batean desegingo zaituztela pentsatzen dutenak.

Zure baimenik gabe ez omen da munduan ezertxoere gertatzen. Vietnamen zu omen zinen tarteko, Biafra zure oniritzi desegin omen zuten. Zure gurdia gurrupilak sendo eta trinkoak omen dira. Lehenago zure aurka buru belarri jardun zutenak orain lagun otxan omen dituzu, Rusiaren iraultza egarria ere ase omen duzu. Bildur naiz Txina bera ere zuk hedatutako sareetan ez ote den galduko.

Ez pentsa gero, Goliat, losintzaz ari nazaizunik. Zerorrek nik baino hobekiago dakizu zure indarraren berri.

Mundua gero eta nahastuagoa aurkitzen dute. Inflazioa dela, estadien eta nazioen morrontza dela, kanpoko kapitalaz baliaturik bertan lantegiak «askatasunez» zabalitza dela eta abar. Zuk kontrolatzen eta erabiltzen dituzun komunikabide-tresnek diotenez, guztia ondo omen doa. Langileek frigorifiko eta autoa erosteko erraztasun haundiagoa izango omen dute, lantegitan lana lehenago baino «erosago» egiten omen da. Zuk eskaintzen duzun «elkarrizketa» giroari eskerrak guztia anaikiro konpondu omen diteke. Bada zerbait Goliat, bazera norbait.

Dohakabea eta zorigaitzokoa zure indarra neurtu gabe borrokatzaera ausartzen dena. Zorigaitzokoa zu desegin asmoz nolana hiri hurbiltzen direnak.

Baina Goliat ez pentsa denak zure alde daudenik, ez pentsa gero etsaiak lo daukazunik ez pentsa zure indarpean borroka gairiditua dagoenik. Nik zure etsaietako bat ezagutzen dut, agian zerorrek ere bai. Dabid gazteaz ari nazaizu.

## DABID

Hona hemen Dabid, apala, kezkatia, ausarta baina zentzuduna, etsaiaren eta bere indarraren berri dakiena. Zerorrek Goliaten zerbizura pasatzeko, bizimodu goxo eta atsegingarria aukeratzeko egokierarik izan duzu. Lantegi barruan borrokan ari zinenean puesto horberik eskaini omen zituzten. Ezezkoren truke kalean jarri omen zaitue. Ibilu ibilian, aterpe on bat eskaini omen dizue, luzarorako gainera.

Ez zenuen harrikadaz Goliat jaus erazterik izan, uste baino azal lodigokoa aurkitu zenuen nonbait. Garai hartako Dabid bezain kementsu jokatu izanagatik ez duzu Goliat lurperatzerik lortu.

«Ez gaitzen humildu, alkarrengana bildu. Sortuko dira berriak...» zioen Xepelar bertsolariak. Bai,

sortuko dira Dabiden antzeko berriak, borroka azkeneraino luza erazteko prest dauden gazte kementsuak.

Baina borrokaldia garaitzeko, Goliat, hain luze, zabal, handi eta etsai maltzur den Goliat hori ongi ezagutu beharko du Dabidek. Bere fruituak, zuhaitza fruituak salatzen duen antzera, ezagutu beharko dituzu. Bai baita ustez Goliaten aurka dabilenik baina, era berean, bere aldeko lana herri barruan egiten ari denik.

Dabidek Goliat ondo ezagutzen badu, bere txikitasunean indarrak biltzen baditu, bere antzeko beste «dabid» batzukin biltzen bada, erasoan aurkitzen direnekin bat egi-

nik jokatzen badu, orduan zu, Dabid, uztarripean aurkitzen den herriarekin batera, nagusituko zera. Badakigu Goliaten hainbat indar eskuratzerik ez duzula izango, baina asko dezakezu guztion batasuna iristen baduzu.

Honenbestez uler dezakezun aintzat esana dagoela uste dut: Turuta hotsa gero eta ozekiago sumatzen da, borrokaren eguna hurbiltzen ari zaizu. Ez igarlekeria edo profetismo merkerik, ez borrokarako luzepekin...

Dabid joan zen, Goliat aurrez aurre aurkitu zuen eta... Historia amaitzeke utzi behar.

MIKEL UGALDE

ETXKO- ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

## JABON LAGARTO

Zure garbiketa maldiaz egiten ba' dezu

ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabilii beti

Esluz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezu erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jabol bakarra Etxeko-andrearentzat neskaamerik egokiena.

## JABON LAGARTO!

## MUEBLES

# URRETAVIZCAYA

1929'an sortutako etxea

ERREDIZAK - EDERGALLUAK

EGIN - GAIAK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS. 45

GAZTEZ (Vitoria)

## ERLOJU ETA BITXITEGIA

*Eduardo Chopetia*

Getaria 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

## BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN BAUEKAZU SAGARRO, ABEBO GAIN-GAINEKOAK ETA EDARI GUZTITATIK

Blae de Leze Kalea, 6  
Urrutizkita: 41 20 65

DONOSTIA

## JOSTUNDEGIA

## MODISTEGIA

*URRUTIA*

Urbietza, 66

DONOSTIA

# Azken zerbait gehiago, buka dezagun

Imanol Laspiur

Aspaldiko zera gertatu da hauz hau. Baina bukaera eman nahi nioke. Beti lanpeturik eta beti itto-ta, buruan dugun hainbat eta hainbat gauza egin ezinik. Baina buka dezadan hasi genuen zera.

ANAITASUNA-ren 252.garren alean, azentuari buruz erabili genuen hauziari erantzuna eman zidan J. E. ETXEBERRIAK, hau da, nik erantzun nionari erantzuna.

Guztiz garbi dakusat diozun dena. Garbi nekusan ere. Hala ere, agian, gehiegi zertu nintzen azentu fonetikoaz. Izan ere, nahiz eta jar ditzakegun azentuok grafikoak izan, hala ere fonetikazko kutsu-endar eta tantazio batek lere "aiorrera" gehiegi eramango ez eta gintuzkeen nago.

Dena den —laburki azal dezadan—, besterik gabe, gehien bat kezkatzen zaituen azentu grafiko premia ala premia-ez horri helduko diot.

Gutierrez aditz-errelatiboen eraginez behar omen genuen azentu grafiko eta aditz-errelatibo hau iraganaldi soilarekin bereiztuko bide genuke honela. Jar dezadan exemplo bat.

Adibidez: Atzo ikusi genuen basetxea erre egin omen da bart.

Kasu honetan neholazko azenturik gabe ere badaki euskaldun batek atzo ikusi genuena dena, beraz, aditz-errelatibua denik eta ez denik pentsaten jarri gabe jatorri ausnar dezake, eta DU beti, errelatibotasun zentzuz. Euskaldun petoak ez du, honetan, zalantzarik.

Baina, ikus dezagun beste hau: Atzo ikusi genuen basetxea eta argazki batzu atera genizkion. Kasu honetan, aditz-errelatibua ez delarik, iraganaldi hutsa baizik, ez luke, zure ustez, azentu grafiko hori behar. Baina bai beste aurre-

ko horrek, lehenbizikoak alegia. Beraz, zure ustez, "...genuen basetxea" izan behar bide luke batakat hau da, azentuatu eta besteak ez. Nire erantzun haretan (buruz ari naiz), azken zatian aski garbi ageratu nuela uste dut aditz-errelatibo kasuetan eta kontrakoetan nola zaizkigun euskaldunori eta nola euskara ikasleei.

Ea garbi ager diezazukedan:

a) Euskara ongi dakienak ez du prolemarik ez idaztean ez eta irakurtzean. Ez dateke, beraz, euskaldunarentzat kakorik.

b) Euskaraz ezer ez dakienaz ez gaitzake mintza. Euskaraz ikasten ari denaz edo ta ikasi nahi duenaz mintza gintzake.

Azken kasu hau azter dezagun, beraz, euskara ikasten ari den horrek non eta nola ukan dezakeen prolema hori.

Zer erraztasun edo ikasbide ukan dezake euskara ikasle batek azentu grafiko horren bitartez noiz aditz-errelatibo den jakin dezan? Benetan ezagugarri ote litzaioke? Benetan ote da horren beharrean ala ez ote litzaioke trabagarri eta, zailtasun baten gainez, beste zailtasun bat gehiago?

Lau kasu jar genitzake azterketa honetan:

- Mintzatzean (aho mintzaketan).
- Entzutean.
- Irakurtean.
- Idaztean.

Mintzatzean: Ikasle baldin bada, zerbait hitz egiten badakiela pentsa dezagun. Aho-mintzaketak azenturik idatz ez dezakeelako ez deritza puntu honi aztergarri, azentu-idatzirik gabe hitzegin beharko du-ta. Gehien bat, zera, azentu imajina bat erabili buruz? Ez dateke hau egiako, ezina bai litzaioke

ikasleari mintzaketan buruzko azentu bat erabiltzea. Gaiaren mamiak esan beharko dio noiz aditz errelatibo eta noiz ez den. Oso ondo dakigu nola ibiltzen den honetan ikaslea. Joskera ere menderatu beharko.

Entzutean: Honetan ez dugu zer aztertutik, ikasleak entzun ahalan ulertu beharko du esaten zaiona, gogo biziz, noski.

Irakurtzean: Irakurtzean ordea, zergatik azentu grafiku hori aditz-errelatiboetan, batez ere iraganaldietan, irakur-gaiak emango baitio irakurleari mamiaren esan-nahia eta funtsa?

Idaztean: Hemen azter genezake, aztertzekotan, azentu honen benetako premiarik ote dugun ala ez. Baina, hots! ahoz mintzatzean azenturik erabili ezina badu ikasle horrek, nola eta zergatik bilatu behar luke idaztean? Ez ote zaio gehiegizko eta zail? Idaztean gaizki baldin balerabil errelatibotasun hori, mintzatzean ere bereizten ez dakielako dateke, errelatibo horri dagokion trakamila hartu ez diolako, noski. Eta, zure nago, trakamila hori ez dela azentu bitartez hartzen, erabiliaz eta gogo biziz baizik. Lau urteko euskaldun haurrek ongi darabilte; baita ere ezer gramatikarik ez dakiten basoko artzainek.

Egia esan, hauxe uste dut: Ikaslea trebea baldin bada ez du horrelako azentu idatzia beharrik. Ikasle hori trebea ez baldin bada, ordea, hala ere ez du azentu idatzirik horren bidez erraz nabaritutako noiz eta nola edo-ta non jarri behar luken aditz-errelatiboari legokion azentua. Nola, bada, idatz lezake non jarri ez badaki? Eta, non eta nola erabili baldin badaki, aditz-errelatibotasuna benetan

ezagutzen duelarik, zergatik, kasu honetan, idatz-arazi? Ez baitu horren beharrik!

Hara, badugu euskara barruan gaztelaniak ez duen bereiztasun argia "sujeto agente" (egile) eta "paciente" horiek ezagutarazteko. Zer hori baino bereiztasun ezagugarri nabarmenagorik? Hala ere, a zelako nekeak eta bereiz-ezinak zenbait ikaslerengan.

Begira:

—NI atzo Donostiatik etorri nintzen nire anaiarekin.

—NIK atzo anaia ekarri nuen Donostiatik.

Euskaldun peto batek ez lezake inoiz hemen bihurrikeriarik egin. Baina euskaldun berri batek edo euskara-ikasle batek "azentu grafiko" bezain edo indartsuago datkeen ezagugarri duke egilearen -K horretan. Hala ere, badakigu hainbat eta hainbaten neke eta nahaspil, noiz egile eta noiz paziente den aditz-jabe hori garbi ikusi ezinik.

Zer gertatzen da? Ez ahal du ikasleak K bat egilearengan eta -K hori gabe egile ez denarengan? Erraza dirudi horien bidez noiz pasakor benar genuen aditza eta noiz pasakaitz. Baina ikasleak ezina du benetan "gogo biziz" esan-nahia ausnartzen ez duen bitartean. Lehenik ZER esaten duen jakin behar. Egumoro ikusten ari gara fenomeno hau.

Horregatik, nire ustez, ez dateke, azentu grafiko bat, aditz-errelatiboa ezagu dezan ikasbidearen erraztasun, neke bat gehiago baizik ikaslearengan eta, guttienez, alferrikako. Zer gertatuko litzaiguke azentu hori praktikan jarri nahi bagenu? Ikasleak ez bide luke erraz-bide izango eta euskaldun jatorrak horren premiarik ez duen

alferrikako neke bat ikasi behar.


Euskara-ikasle bat nekez ari bazaigu noiz "NI" eta noiz "NIK" naizen bereizten, zer gehiago egin genezake, batean NI naizela eta beste horretan NIK agertzea baino? Batari edo besteari azentu bat jarri oraindik? Ez, ez holakorik. Betiko bide bakarra: erabiliaren erabiliaz eta ari izanaren ari izanaz gaiaren, mamiaren eta esan-nahiaren bidez ulertarazi noiz izan behar duen "Ni" eta noiz "Nik", eta bakoitzari dagokion kasuetan aditz pasakaitz eta pasakor dirala.

Bukatutako, egun hartakoa bera esango dizut guti-gora-behera: Ez dut azentu horretan sinesten, ezta ere, ez deritza horretarako garaia denik. Euskarak premia larriagoak dituzke gaurkoan eta azentu premia hori, benetan premia baldin baliuz ere, geroko gizaldi baten eskuetan utziko nuke, euskara benetan sendoago eta indartsuago litzatekeen une batetarako.

Gaurkoarren erraztuaz, euskara erraztuaz, sinpletuaz joan gaitzen ikasleok gehiago harri eta izu ez dakizkigun. Ba dago zer egin hobetik eta horretan ari zarete. Esate baterako: zuen EUSKALDUNTZEN ikasbidea.

Bukatutaz utz dezagun. Tori bostekoa, Etxeberria.

I. L.




## pezeta baiño gehiago, saritan

lenengo saria 1.000.000 bat pezeta/bigarren saria 2500.000 pezeta eta 100.000 bana pezetako 4 sari

edozein libretetan sartzen diran milla pezeta berri bakoitzeko zenbaki txartela izango dezu eta libretan dauz-kazun 5 milla pezetakorik aña zenbaki dagozkizu gañera

\* diru epea: dagonilla'ren 14 arte



CAN

Donosti - Curreerki - Kutxa

PUBLICIDAD

# EUSKALZAINDIA ARRASATE-N

Ekainaren 21ean Euskaltzaindiak bi bilkura egin zituen Arrasateko Udaletxean: bata barrengoa eta bestea agerikoa.

Barrengo bilkuran har-emanetako gai batzuk ukitu ziren, hala nola: Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntzaz eratutako "Eusebio M. Azkue" olerki sariaren oinarriak jartzea; J. M. Barandiaren jaunaren omenezko jaialdira telegrama bialtzea, eta abar.

Bilkura ageriari hasiera ematekoan, agur-hitz batzuk esan zituen Aita Villasantek: nola batzar hura Arrasateko Udalaren eskariz egiten zen, nola herri hartako euskaltzain eta euskaltzailerentzako oroitze egiten zen, eta abar.

Ondoren, euskaltzain laguntzaile berriei diplomak eman zitzaizkien. Zarate, Eppherre, Bilbao, Zumalabe, Ugalde eta Olaizola jaunei, alegia.

Lehen hizlariak (Jaime Kerexeta apaizak), Juan Karlos Gerra euskaltzain eta heraldikalari jaunari buruz egin zuen bere hitzaldia. Arrasateko harma-harridun etxeak bana-banaka izendatu zituen, J.K. Gerraren obretarik xehetasunak hartuz.

Jose Antonio Arana lege-gizonak beste hitzaldi bat egin zuen Sebero Altube jaunaren bizitza eta lanari buruz, bai hizkuntzalari eta bai musikarari bezala dituen mereziak agirian jarriz.

Aita Villasantek euskeraren bizitzari buruz Sebero Altubek emandako dotriñaren muiña azaldu zuen, eta bereziki euskera idatziaren batasuna egiteari Altubek ematen dijon garrantzia azpimarkatu zuen.

Juan Garmendia "Zeleta" jaunak hitz batzuk esan zituen Benigno Altube, Seberoren anaiari buruz.

Azkenik, Haritscheihar euskaltzainburu-ordearen hitzekin bukatu zen batzarra.

(Euskaltzaindiko Prensa Bulegoaren Agiria)

## JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALBUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA



arístegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK,  
PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR.  
GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIK.

ERAKUSTOKIA:  
FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 11450  
DONOSTIA

BAR - RESTAURANTE

# AURRERA

HAUXE DUZU ZURE JATETXEA

Urbietan, 12

Urrut.: 411528 - 412578

— DONOSTIAN —

## ZINE

# Luis Buñuel

(I)

Zinegile honetaz lehen ere zerbait mintzatuak gara. Egun ordea, guziok ari gara jo-ta ke Buñuel gora eta behera. Bolada honetan gizon hau aipatzen ez duen aldizkaririk bai ote?

Herbesteko filmek duten saria, Buñuel-en «La charme discret de la bourgeoisie»-k irabazi du Hollywood-en, eta hor ari zaizkigu izparringi guziak Buñuel espainiar bihurtu nahiz.

Hala ere, bere lanik gehienak, atzerrian eginak ditu, Espainian askatasunik eza eta agintarien gaitzespena zituelako. Izan ere, Buñuel ateo izanik (egun ere Jainkogabea dugu), ez zen itxura hain katoliko den estaduko ateak zabaltzea. Oraindik orain utzi diote zirrikitu bat, eta bere lanaz ohartzen hasi gara.

Pelikula batzuk, lortu dute azterlaritzaren baimena («Los Olvidados», «Ensayo de un crimen», «Tristana», «Nazarin» e.a. Areto berezietan berriz, «Un chien andalou», eta «Las aventuras de Robinson Crusoe» ere ikusi ahal izan dituzte), baina gehienak debekatuak daude. «Viridiana», «Le journal d'une femme de chambre», «Bello de jour», «La voie Lactea» e.a. lekuko.

Dena den, pelikula alde batetara utzirik, gizon honen biografiaz jardun nahi nuke gaurko honetan.

1900. go Otsailaren 22an jaioa dugu Buñuel, eta Teruel-go Calanda herriak eskaini zion seaska. Sei anaia arrebetan zaharrena zen, eta agian zaharrena izateari zor zaio beti izan duen izakera agintzaile eta berezia.

Bere gurasoak, XX. mendeko burgesak, dirudunak, ziren.

Jesulagunen eskola batetan egin zituen lehen ikasketak Zaragoza-n. Jesulagunen ikastetxe hartan zeuden arau eta bizimodu zorrotzak, betiko kutsatu zuten gure zine-glizona. (Kritiko gehientxoan bat datoz honetaz).

Buñuel-en pelikuletan, apaiz, gotzai ala monjak beti agertzen zaizkigu. Haien kontura farra egiteko batzuetan, eta erlijioaz bere aburuak adi arazteko bestetan.

Zortzi urte egin zituen (1907-1915) jesulagunen eskuletan, eta ikastetxe hartako gertaerak gogoan izan ditu bere lanak egiterakoan: Erretiro egunak, Loiola-ko Inazio-ren gogojardunak, e.a.

«El ángel exterminador» filmean, pekatu astunean dagoenaren heriotza, eta «La voie Lactea»-n, Fray Luis de Granada-ren «Guía de Pecadores»-ko zati batzuk azaltzen dira adibidez.

«Hamasei urte nituela fedea galdu egin nuen» ere, bere esaera da. Zaragoza-ko jesulagunak utzi, eta lurgintza-injeniero ikasketak hasi zituen Madrilan, aitaren aginduz. Filosofia eta Letrak karrera ere egin hasi zen ordea, aitaren ezjakinean.

Ikasketa hauetan ziharduela, Espainiako politikan aldaketa batzuk gertatu ziren. Primo de Rivera-k hartu zituen agintaritzak guziak, eta nahiz Buñuel-ek, politikoa ez zela bere buruaz aitortu, ezin jasan zuen

egoera hura eta herbesteratzea erabaki zuen. (Alta 1923. ean hil zitzaion) 1924. urtean, Parisen dugu gure gizona. Aldi hartan Europako artista eta politikoen bihotza zen hiriburuan.

Hilabete gutxitara, «El retablo de Maese Pérez» operan parte hartu zuen Hamburgo-n. Baita lana egcki egin ere kritikak zionez.

Pariseran itzulirik, gogor hasi zen lanean. Bere ideiak nahi zituen eran agertzeko, beste inon ez bezalako askatasuna zuen. Izan ere, han egindako pelikula Espainian egitea ez zegoen amesterik.

Parisen baita ere, Jeanne Rucar emaztetzat hartu eta zinemarako grina bizkortu zitzaion. Hiru pelikulek (mutuak hirurak) eragin zuten gehien bat zine-lanetara: «Der Müde Tod» (Fritz Lang-ek 1921. ean egina), «Scherben» (Lupu Pick-ena-1922) eta René Clair-ek 1924. ean burututako «Entr'Acte»-k.

Antzerki lanak alde batetara utzi, eta Jean Epstein-ek sortutako zine-akademian hasi zen ikasten. Bere burua asko jantzi zuen Buñuel-ek ikastaro honetan.

Hala ere, maixu-ikasleak ez zetozen bat beren ideolojietan. Buñuel-ek, surrealismo bidea zuen gogozko. Irakaslea berriz, forma horien etsai zen. Elkar utzi zutenean, berak bakarrik lehen pelikula egitea nahi izan zuen Buñuel-ek. Laguntzile asko zituen horretarako, baina dirurik ez.

Bere amaz oroitu zen (harek dirua bazuela-ta), eta eskale joan zitzaion.

Diru hari esker, «Un chien andalou» egin zuen, Salvador Dali laguntzat harturik.

Geroztik, Espainiara joan eta herbesteratu beharra izan zuen berriro. Mejiko ere ezagutu zuen, eta hango ziudadania hartu.

Baina, kontu hauek guziak, urrengo betetarako utziko ditugu. Buñuel-en pelikulen zerrenda ifiniak bukatuko dugu gaurko.

1929, Un chien andalou.—1930, L'age d'or.—1932, Las Hurdes, tierra sin pan.—1946, Gran Casino.—1949, El gran calavera.—1950, Los Olvidados.—1950, Susana la perversa (Demonio y Carne).—1951, La hija del engaño.—1951, Una mujer sin amor (Cuando los hijos juzgan).—1951, Subida al cielo.—1952, El bruto.—1952, Robinson Crusoe.—1952, El.—1953, Abismos de pasión (Cumbres borrascosas).—1953, La ilusión viaja en tranvía.—1954, El río y la muerte.—1955, Ensayo de un crimen.—1955, Celia s'apella l'aurore.—1956, mort en ce jardin.—1958, Nazarin.—1950, La fiebre monte a el Pao.—1960, The young one.—1961, Viridiana.—1962, El ángel exterminador.—1963, Le journal d'une femme de chambre.—1965, Simón del desierto.—1966, Belle de jour.—1969, La voie Lactea.—1970, Tristana.—1972, Le charme discret de la bourgeoisie.

XABIER UNANUE

# Joxemiel Barandiarani gorazarre dela ta...

Bai, Joxemiel Barandiarani gorazarre dela eta, ukan dugu atundur eta euskaldun orok, ekainaren 12-tik 12-era, Ataunen, zerikusi eta zerikasi frango. Nork uka egitarau bikaina zela prestatu zena? Agian, ez hain fin moldatua, baina tira!...

## HITZADIAK

Egitarruak, hitzaldiak San Gregorio hauzoko elizan izanen zirela zioen; baina zenbait gora-behera gertatu bide zelarik, aipaturiko hauzoko "Igarondo" aretoan eman ziren, eta ez elizan.

Hitzaldi guztiak, arras interesgarriak izan ziren eta goi-mailakoak. Jendea eurrez bildu zen guztietara: ene ustez, berrehunen bat bai aldiko. Baina Ataunen lertako jendea, ez hainbeste; batipat "jende heldua" gutti.

Euskal Literatura Gaur. Hau izan zen lehen hitzaldiaren gaia. Hizlari, Andu Lertxundi ukan genduen. XIX-gn mendearren amaieratik gaur arte euskal literaturak iragan dituen urrats garrantzitsuenak argi ta garbi aditzera eman zizkigun. Lehenik, gerra aurretikakoaren eskema bat prestatu zigan hitzalditxoaren ondoren harbelean. Eta gero, beste hitzalditxoaren ondoren gerra ondorengoaren agerpen bat eman zigan idatzita. Gerra aurretikakoaren atalean, eratu ziren lore-jokoen berri zertxobait eman zigan, eta beraien eratzaille gartsu-mentariko bezala D'Abbadie eta Manterola aipatu zizkigun. Euskararen batasunari dagokionez berriz, 1921-eko apurketa nigargarri hartaz mintzatu en zertxobait. Eta euskararen batasun premia hori, egun guk baino larriago zekusatela garai hartan, esan zigan. Bestalde, giro mitologikoaz ere mintzatu zen; baita Gasteizko apaizgaitegian sortu zen mogimenduz ere (hemen, Joxemiel Barandiarani eta Manuel Lekuona omen ziren aitzindarinarinetakoak). Eta azkenik, atal honetan, Resurreccion Maria de Azkue aipatu ta laudorioz horniturik utzi zigan. Haren "Cancionero Popular Vasco", "Diccionario Trilingüe" eta "Euskalerraren Yakintza" aipatu zituen; Eta aipatu bakarrik ez! Zeren eta Euskal Herria ezagutu nahi dugunak, "Euskalerraren Yakintza" tresna behar beharrezkoa duela esatera ausartu bait ziztaigun. Eta segurki, ez da ez guzurrta izanen!

Gero, gerra ondorengo giroa azaldu zigan. Ekaizta latz harek itsatsi zuen giro arbuigarriaren salbatzaile, Orixe izan zela esan zigan. Bere eritziz, hor dago baita ere Arantzazu (Salbator Mitxelena eta "Jakini"). Ta azkenik olerkigintzaz, saiakeraz, narratibagintzaz eta antzerkigintzaz mintzatu zen.

Egia esan, hitzaldi interesgarria ukan zen. Hizlaria, benetan bikaina. Dakikegunez, azken "Urrezko Luma" sariaren irabazlea. "Ajea du Urturik" eta "Hunik Arrats Artean" liburuaren egilea.

Zintzarria. Fermin Leizaola eskaini zigan hitzaldiaren gaia duzku, irakurle. Hitzaldia interesgarria izan zela (gaiaren aldetik, batipat) ez dago ukatzerik, baino ez dago baieztazerik jendeari oso-oso atsegin egin zitziola ere.

Hitzaldia irakurri egin zigan. Ferminek ez bait daki euskaraz. Tamalgaria benetan, horixe! Diapositiba eder batzuek proiektatu zitzi-gun amaieran.

Gauza anitzen artean, zera esan zigan. Dunba, zintzarri mota bat dela. Zintzarri tripatsua eta aho-borobilduna hain zuzen ere. Zera ere esan zigan: hots, larrazko ta zurezko zintzarrien egiletariko bi baditugula Ataunen. Hara, guk ataurdarrok, gehienok bederen ez geniekien gauza. Aia hauzoko Beiztin baserriko Patxi Goikoetxea (orai uztaila) eta Doniturrietako artzaia omen dira bi horiek.

Euskal Ipuiak. Hauxe duzu irakurle, gorazarreko hirugarren eguneko hitzaldiaren gaia. Bestalde, Debako arte-eskolan lanean dihardutenetarik bat genduen hizlari: Joxemari Larramendi, hain zuzen ere. Hizlari jatorra ta argia dela aitortu behar. Lehenik, ethnologia azterketa bat egiterakoan ez urrats eman behar izaten diren agertu zuten: dela bizikera, ekonomia, erlijioa, jolasak, lege-arazoa, erakundeak, hizkuntza, eta abar. Horiek

denak eta puntu gehiago zertxobait expikaturik, euskal ipuiekin sartu zen bete-betean.

Hitzaldia, Joxemiel Barandiaranek bere ama zenari jasotako (harturiko) ipui bat irakurriaz amaitu zuen. "Zapatari txiki" izeneko ipui polita eta farragarria, hain zuzen ere.

XVIII-ko Frantziako Iraultza eta Ifar Euskal Herria. Hauxe da Eugenio Goyenetzek ukitu ta aztertu zuen gaia. Arras interesgarria izan zen. Konklusio anitz atera zitezkeen (eta atera zirela uste dut) Goyenetxe jaunaren solasaldi hartatik. Puntada ta egia handiak atera ziren bestalde, Eugenioren hitz-jario amaituezinek haretan.

Berriro diot oso izan zela garrantzitsua hitzaldi hura. Baina egia da baita ere, tamalgaria dela Bidasoaz haruntziko gizon bat Ataunen gazteleaz mintzatzea. Beste behin, arren, ez dadila horrelakorik gerta!

Baserrira Gaur. Egun, Euskal Herria puri-puri dagoen gaia dukegu aipaturiko hori; eta ekainaren 18 an Andoni Lekuonak aztertu zuena.

Nik, Joxemiel egin zaion gorazarreko hitzaldi interesgarritsuena izan zela entzulegoaren alde, esanen nuke. Hamabi edo agian gehiago izan ziren jendeak egin zituen galderak.

Bestalde, Andoni Lekuonak zera zioen: hots, baserriak hustutzen doazela, baina hori ez dela —ez lukeela izan behar, bederen— hain beldurgarria. Eta egia esan, ez du arrazoizki faltarik ukanen Andonik. Ala, nortzu gaude prest baserriko bizimodu latza aurreruntz eramateko?

Diru-ekasiaz ere agertu zuen. Baita, ez dela beste gabe onartzekoa lurra pinudi bilakatea ere. Eta egun, zoritxarrez, zertan ari gara? Ataunen behintzat, aurreruntz begiratzen badugu pinua ikusiko dugu, atzeruntz begiratuz ere pinua, eta ezker-eskubitara ere pinua dakusagu. Baratzari dagokionez berriz, baserriarrak galera geratzen direla agertu zuen. Agian, norbaitek zera esan du hau irakurrita: hots, "hori da astakeria, hori zelan esan liteke produkzioa handia izanik?". Berdintsu da kasu honetan produkzio gora-behera Andoni Lekuonak frogatu nahi zuena esateko. Zeren eta produkzioa handia izanarren merkaturia exkaxa baldin bada —eta zoritxarrez halaxe da— baserriarrak galera geratzen dira.

Preparaziorik eza akats handitarikoa zekusan Andoni Lekuonak.

Ondoren elkar-hizketa luze bezain garrantzitsua sortu zen, eta aparteko bizitasun bat eman zion ene ustez hitzaldiari.

Prehistoria Ikasketak Euskal Herria. Gai honetaz eman zen aipaturiko gorazarreko azken hitzaldia. Jesus Altuna prestua, garbi ta serioki mintzatu zitziagun. Entzulego osoari, arras lafet egin zitziagun hitzaldia. Agian, diapositiba ederragatik ere bai.

Paleolitos, Mesolitos, Neolitos eta Burdin haroak aztertu zituen. Paleolitos haroa, bestalde, hiru partetan banatu zuen: hots, behe paleolitos haroa, erdiko paleolitos haroa eta goi paleolitos haroa.

Haro bakoitzeko ezaguarri garrantzitsuenak eman zitziagun aditzera: dela klima, erti-lanak, bizitokiak, bizimodua, endak, tresnak, eta abar.

Oso interesgarria iduritu zitziagun, eta oso atsegin gertatu gainera. Bai alazankoa!

## JAIALDIAK

Jaialdi biak, nahiz bertsolariena hala abeslariena, San Martin hauzoko Altzanipe zelaian ukan genituen. Bertsolariena ekainaren 16-an eta abeslariena ekainaren 20-an.

Bertsolarienari dagokionez, esan dezadan jaialdi bikaina izan zela. Dakikegunez, zazpi izan ziren parte hartu zuten bertsolariak: hots, Lasarte, Arozamena, Lazkao-Txiki, Igarzabal, Xalbador, Lopategi eta Mugartegi. Zein baino zein hobekak; harrigarria benetan, bertsolarien dute hori berezia. Egia esan, lehendik ere aski frogatua dute.

Gaiak, herriko gazte batzuk prestatuak ziren. Oso interesgarriak eta egoki preparaturik zeudela iduritu zitziagun.

Aurkezle eta jaialdiaren zuzen-

dari, horrelako jaialditarako nehor guti baino egoki ta finagoa den Inozentzio Olea jauna izan zen. Egoki bete zuen bere zeregina. Bai horixe!

Bestalde, jendea erruz izan zen. Ez zela asperitu esan behar. Oso gustora egon zen eta errespeto handiz. Izan ere, bertsolarien hitz-jario gozoa ez ezik, arratsaren epela ere arras hunkigarri gertatu zuen.

Bertsolariena ez ezik, abeslari, txalapartari, trikitilari, poeta eta gitarristen jaialdi bat ere, ikus ahal izan dugu. Ekainaren 20 an ikusi ere.

Jaialdi bikaina benetan. Hain entzun genien Oskarbi, Mikel Laboa, Manex Pagola, Xabier Lete, Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi, Lupe eta Gorka Knörr abeslariak. Gorkak, Benitoren laguntzaila gisa abestu zuen. Beraz, ez genion bakarrik abesten entzun —ez bait zitziagun utzi!— gure gasteiztar kantari bikain eta idazle argiari.

Batzu, beste zenbait baino gehiago gustatu zitziagundak, baino den-denak abestu zuten ongi. Txalo ugari ere jaso zituzten. Oskarbi taldea, Antton Valverde gabe etorri zen; haatik ongi bete zuen bere zeregina. Zer esanik ez lehendik Ataunen ezagunak ditugun Mane Pagola, Xabier Lete eta Lourdes Iriondorekin. Lourdesek eta Xabierrek, bere bizar beltz eta guzti, Bernard Decheperaren "Euskara, ialgi hadi mundura" poesia kantatuz amaitu zuten heuren saioa. Lertxundi, bestalde, agian aspergarri xamar gertatu zitziagun entzulegoari —ez guztiari—, bere zenbait kantatan. Dena-den, aitortu egin behar Gorkaren abotsak asko gozatu zituela Benitoren zenbait abesti. Mikel Laboarekin, Benitoren gertatu zen antzeko zenbait gertatu zen, agian. Zenbait kanta aspergarri gertatu zitziagun entzulegoari; ez ordea, "Gure Aita". Dena-den, bi abeslari hauen —nahiz Lertxundi, hala Mikel Laboa—goi-maila aitortu behar gaude. Eta heuren zenbait kanta, ez zaizkio entzulegoari gustutzen ez kantak txarrak direlako, ulertzen ez ditugulako baizik. Horretxegatik batipat! Beraz ezin genezake kritika txar bat egin —zoritxarrez maiz egiten diegun bezala— abeslari horiek; zeren eta gure behe-maila ere kontutan har behar zait dugu. Manex Pagola berriz, denoi gustatu zitziagula uste dut. Zeinen abeslari fina den Bidasoaz haruntziko euskaldun hau!

Lupe neskatza argiaren saioa, bai ederra! Hurraxe zen entzuten genien lehen aldia, eta egia esan, oso abeslari ona dela iduritu zitziagun. Ea noiz ukaiten dugun berriro, berari entzuteko aukera.

Eneko ta Mikel Labegerie, ez ziren etorri. Jon Enbeitza ere ez. Azken honen arrazoia, orok dakikegu. Hori zorigaitza!

Arza anaien txalaparta saioa oso txalotua izan zen. Luze xamarra gainera. Trikitilarien saioak berriz, Joxanton Arzak jaialdiaren haseran esan zuenaren arabera, hezur-rrak mogitzeko baliotsu gertatu ziren.

Xabier Lete eta Joxanton Arza poeten olerki irakurtaldia ere, jendearentzat oso atsegin izan zen.

Joxe Mari Zabalen musika saioa, ene ustez aspergarri xamar gertatu zitziagun askori. Haatik, ezin uka, Gernikak —eta bide batez Euskal Herriak— jasan zuten ekaitz latz hura gogoratzen digun Joxe Mari Zabalen —eta ez Sorozabalen Hileta Musika— musikaren balio izugarria. Aurrera bada, Zabala!

Jaialdia, goizeko hirurak inguruarte luzatu zen. Jendetza handia bildu zen, eta guk ikus ahal izan genduen, errespetoz egon zen.

HAURREN EGUNA

San Gregorio hauzoko ospatu genduen, ekainaren 17-an. Mila ta bostehunen bat haur bilduko zela deritzat. Euskal Herriko lurralde gehienetarik omeak bildu ziren. aita larriak ere.

Sakabi eta Egañazpiren trikitixa saioaz eman zitziagun hasera egunari. Ondoren, txistulari ta dantzariak, Joxemiel bere "Sara" etxetxora joan zitziagun mezata-joateko bila. Lehenago, Beasaingo txistularien ongi etorria hartua zen. Meza, frontoian eman zen.

Ohi denetik at, txistulari, dantzari ta haur bertsolarien saioez horniturik eta hitzalditxo egoki batez osaturik eman zen herri-meza delazkoa. Haur eta larri asko zen meza-entzule, baina enparantza, kontuak esateko toki bilakatu zen, zoritxarrez. "Zaharrenak eta okerrrenak!". Ez da, ez, guzurrta.

Gero, txistularien konzertoa eta dantza talde batzun ekinaldia ikus ahal ukan genituen. Ikuskarri bikainak benetan!

Bazkalondoa, arratsaldean, beste dantza talde batzun ekinaldia ikus ahal ukan genduen. Baita Zauruzko haur-abeslarien saioa entzun eta ikusi ere. Eta baita azkenik, Donostiako "Kresala" taldeko pailasoen ekinaldia ere.

Arratsaldeko jaialdi hori, Andu Lertxundik aurkeztu zuen. Baita bereak eta bi —egia, egia!— esan ere. Bai alazankoa! Eta gainera, nor Andu baino egokigorik horretarako?

Sakabi eta Egañazpiren erromeria alaiak eman genien amaiera, egun googangarri hari. Bene-benetan bikaina izan zen egun hari.

## JAI NAGUSIA

Iturengo Zanzanzar-en, trikitilarien eta txalapartarien "Egun Sentia"-rekin eman zitziagun hasera.

Goizean, Txistulariek kalejira bat jo zuten eta dantzariak kalezkale ibili ziren.

Herri-meza bikain bat entzuteko aukera ere ukan genduen.

Txistularien konzertuari dagokionez berriz, nik ezin hitzegin; neu ere tarteko bait nintzen. Ramon Modesto Aranburu txistulari bikainak zuzendu zuen konzertoa hura. Jo genituen obrak, euskal musikalarik bikainenetarikoenak ziren. Bestalde, jendearen eritziz, konzertoa bera ere ona ukan omen zen. Beno ha, eskerrirako!

Gero, "Biktor" jatetxean, bazkari bat prestatu zen. Seirehunen bat jenderi eman zitziagun jaten. Bazkal-giroa, eta hau da interesgarria, oso ona ukan zen. Bazkalondoa "Ansoa Anaia" Txistulari argiek eskaini zuten txistu-saioa, bai ederra, bai hunkigarria! Azpilaga ta Lizaso bertsolarien saioa berriz, egia bikainen agerpen bat ukan zen. Mila bider txalotua izatea aipaturiko bertsolari bien hangoa saio haren. Jendartean sortu zen elkar-hizketa giroa, bestalde, arras pozgarria.

Arratsaldean, dantzarien saioa bikain bat prestatu zen. Eguraldi txarra egin zuelako, txistularien konzertoa bezala dantzarien saioa ere, elizan ukan zen.

Parte hartu zuten dantza-taldeak, hauek dira: Estellako Larraiza, Donostiako Argia, Luzaideko Bolantak, Otxagabiako Muskilda, Durangoko Yurreta, Gasteizko Gasteiz eta Bilbaoko Bizi-Nahi.

Jaialdiaren aurkezle, Loiola herri-irratiko Joxe Mari Iriondo ukan zen. Oso egoki bete zuela bere zeregina, aitortu behar.

Dantzari buruz berriz, ez naitzazue mintzatu, zeren eta luzeegi bait doakit lantxo petral hau. Bakar-bakarrik, ene zorianik gartsuenak ematen dizkiet aipaturiko talde guztiei, heuren ekinaldi trebeagatik.

Jaialdi honetan, oroigarri bat eman zitziagun Joxemiel. Kalkuladore elektronikoa bat, hain zuzen ere.

Haurren egunean egin zen arratsaldeko jaialdian ere, eman zitziagun Joxemiel oroigarri bat. Beno, barkatu. Zeren eta oroigarri bat ez, anitz bait zitziagun eman. Haurren esku-lanetarikoa batzuek eman ere. Den-denak, zein baino zein ederragoak.

Beno, ta hariari atxikiak, hots, gorazarreko jai nagusira itzuliaz, ba al dut zer esan gehiagorik? Ez askorik. Jai hura, trikitilariak eratu zuten erromeria alai batez amaitu zen. Eta bide batez, gorazarre edo omenaldia ere, bai.

Ohi denetik at, txistulari, dantzari ta haur bertsolarien saioez horniturik eta hitzalditxo egoki batez osaturik eman zen herri-meza delazkoa. Haur eta larri asko zen meza-entzule, baina enparantza, kontuak esateko toki bilakatu zen, zoritxarrez. "Zaharrenak eta okerrrenak!". Ez da, ez, guzurrta.

Gero, txistularien konzertoa eta dantza talde batzun ekinaldia ikus ahal ukan genituen. Ikuskarri bikainak benetan!

Bazkalondoa, arratsaldean, beste dantza talde batzun ekinaldia ikus ahal ukan genduen. Baita Zauruzko haur-abeslarien saioa entzun eta ikusi ere. Eta baita azkenik, Donostiako "Kresala" taldeko pailasoen ekinaldia ere.

Arratsaldeko jaialdi hori, Andu Lertxundik aurkeztu zuen. Baita bereak eta bi —egia, egia!— esan ere. Bai alazankoa! Eta gainera, nor Andu baino egokigorik horretarako?

Sakabi eta Egañazpiren erromeria alaiak eman genien amaiera, egun googangarri hari. Bene-benetan bikaina izan zen egun hari.

## JAI NAGUSIA

Iturengo Zanzanzar-en, trikitilarien eta txalapartarien "Egun Sentia"-rekin eman zitziagun hasera.

Goizean, Txistulariek kalejira bat jo zuten eta dantzariak kalezkale ibili ziren.

Herri-meza bikain bat entzuteko aukera ere ukan genduen.

Txistularien konzertuari dagokionez berriz, nik ezin hitzegin; neu ere tarteko bait nintzen. Ramon Modesto Aranburu txistulari bikainak zuzendu zuen konzertoa hura. Jo genituen obrak, euskal musikalarik bikainenetarikoenak ziren. Bestalde, jendearen eritziz, konzertoa bera ere ona ukan omen zen. Beno ha, eskerrirako!

Gero, "Biktor" jatetxean, bazkari bat prestatu zen. Seirehunen bat jenderi eman zitziagun jaten. Bazkal-giroa, eta hau da interesgarria, oso ona ukan zen. Bazkalondoa "Ansoa Anaia" Txistulari argiek eskaini zuten txistu-saioa, bai ederra, bai hunkigarria! Azpilaga ta Lizaso bertsolarien saioa berriz, egia bikainen agerpen bat ukan zen. Mila bider txalotua izatea aipaturiko bertsolari bien hangoa saio haren. Jendartean sortu zen elkar-hizketa giroa, bestalde, arras pozgarria.

Arratsaldean, dantzarien saioa bikain bat prestatu zen. Eguraldi txarra egin zuelako, txistularien konzertoa bezala dantzarien saioa ere, elizan ukan zen.

Parte hartu zuten dantza-taldeak, hauek dira: Estellako Larraiza, Donostiako Argia, Luzaideko Bolantak, Otxagabiako Muskilda, Durangoko Yurreta, Gasteizko Gasteiz eta Bilbaoko Bizi-Nahi.

Jaialdiaren aurkezle, Loiola herri-irratiko Joxe Mari Iriondo ukan zen. Oso egoki bete zuela bere zeregina, aitortu behar.

Dantzari buruz berriz, ez naitzazue mintzatu, zeren eta luzeegi bait doakit lantxo petral hau. Bakar-bakarrik, ene zorianik gartsuenak ematen dizkiet aipaturiko talde guztiei, heuren ekinaldi trebeagatik.

Jaialdi honetan, oroigarri bat eman zitziagun Joxemiel. Kalkuladore elektronikoa bat, hain zuzen ere.

Haurren egunean egin zen arratsaldeko jaialdian ere, eman zitziagun Joxemiel oroigarri bat. Beno, barkatu. Zeren eta oroigarri bat ez, anitz bait zitziagun eman. Haurren esku-lanetarikoa batzuek eman ere. Den-denak, zein baino zein ederragoak.

Beno, ta hariari atxikiak, hots, gorazarreko jai nagusira itzuliaz, ba al dut zer esan gehiagorik? Ez askorik. Jai hura, trikitilariak eratu zuten erromeria alai batez amaitu zen. Eta bide batez, gorazarre edo omenaldia ere, bai.

Ohi denetik at, txistulari, dantzari ta haur bertsolarien saioez horniturik eta hitzalditxo egoki batez osaturik eman zen herri-meza delazkoa. Haur eta larri asko zen meza-entzule, baina enparantza, kontuak esateko toki bilakatu zen, zoritxarrez. "Zaharrenak eta okerrrenak!". Ez da, ez, guzurrta.

Gero, txistularien konzertoa eta dantza talde batzun ekinaldia ikus ahal ukan genituen. Ikuskarri bikainak benetan!

Bazkalondoa, arratsaldean, beste dantza talde batzun ekinaldia ikus ahal ukan genduen. Baita Zauruzko haur-abeslarien saioa entzun eta ikusi ere. Eta baita azkenik, Donostiako "Kresala" taldeko pailasoen ekinaldia ere.

Arratsaldeko jaialdi hori, Andu Lertxundik aurkeztu zuen. Baita bereak eta bi —egia, egia!— esan ere. Bai alazankoa! Eta gainera, nor Andu baino egokigorik horretarako?

Sakabi eta Egañazpiren erromeria alaiak eman genien amaiera, egun googangarri hari. Bene-benetan bikaina izan zen egun hari.

## JAI NAGUSIA

Iturengo Zanzanzar-en, trikitilarien eta txalapartarien "Egun Sentia"-rekin eman zitziagun hasera.

Goizean, Txistulariek kalejira bat jo zuten eta dantzariak kalezkale ibili ziren.

Herri-meza bikain bat entzuteko aukera ere ukan genduen.

Txistularien konzertuari dagokionez berriz, nik ezin hitzegin; neu ere tarteko bait nintzen. Ramon Modesto Aranburu txistulari bikainak zuzendu zuen konzertoa hura. Jo genituen obrak, euskal musikalarik bikainenetarikoenak ziren. Bestalde, jendearen eritziz, konzertoa bera ere ona ukan omen zen. Beno ha, eskerrirako!

Gero, "Biktor" jatetxean, bazkari bat prestatu zen. Seirehunen bat jenderi eman zitziagun jaten. Bazkal-giroa, eta hau da interesgarria, oso ona ukan zen. Bazkalondoa "Ansoa Anaia" Txistulari argiek eskaini zuten txistu-saioa, bai ederra, bai hunkigarria! Azpilaga ta Lizaso bertsolarien saioa berriz, egia bikainen agerpen bat ukan zen. Mila bider txalotua izatea aipaturiko bertsolari bien hangoa saio haren. Jendartean sortu zen elkar-hizketa giroa, bestalde, arras pozgarria.

Arratsaldean, dantzarien saioa bikain bat prestatu zen. Eguraldi txarra egin zuelako, txistularien konzertoa bezala dantzarien saioa ere, elizan ukan zen.

Parte hartu zuten dantza-taldeak, hauek dira: Estellako Larraiza, Donostiako Argia, Luzaideko Bolantak, Otxagabiako Muskilda, Durangoko Yurreta, Gasteizko Gasteiz eta Bilbaoko Bizi-Nahi.

dezadan esan, oso lan onez horniturik zegoela. Esate baterako, esatainoz eginikako Joxemielen aurpegia; oso onak ene eritziz, egurrean egindako Joxemielen aurpegia eta bere jaiotetxe "Perume-zaharra" ere. Nonbait, baditugu haur-artista onak Euskal Herria. Ea bada haurrak, ekin lanari eta aurrera gogor, Herriak denok behar gaitu salba dadin eta.

Euskal Arte erakusketa berriz, oso interesgarria zela esan behar; Txillida (Gonzalo ta Eduardo), Goenaga, Zumeta, Kardenas, Grazenek, Nogel, Arozena, Ulazia, Tappia, Ibarrola, Basterretxea, Alvarez, Ruiz Balerdi, Hernandez Mendizabal, Bizkarrondo eta Bixente Larrearen pintura ta eskultura zenbait zeuden beste anitz euskal artisten lan aipagarrien artean. Barka biezaidate azken hauek, heurak ez aipatzea; baina luzeegi doakidanez, laburtu behar gaude.

Euskal Liburu eta disken azoka ere ukan dugu. Eta irakurleagoari egia zor didanez gero, inon gutitan ikus izan dudana bezain zabal eta interesgarria izan zela esan behar. "GERO", "JAKIN", "AUS-POA", "ITXAROPENA", "LUR", eta abarretako liburuak ikus ahal izan genituen. Baita "Anñamendi" eta "La Gran Enciclopedia Vasca"-ko zenbait ere.

Diskei buruz berriz, euskal diskarik gehienak salgai egonen ziren.

## JOXEMIELEN HITZAK

Gorazarre honetan, bi bider hitzegin zion Joxemielek aurrean ezarri zitziagun jendetza handi hari. Lehenik, haurren egunean ukan zen jaialdian eta hurrena, jai nagusian dantzariak egin zuten ekinaldian barna.

Hitz haieatetik, gogoratzen naizenak alde batetik eta neri garrantzitsuenak deritziagundak besteetik, kontatzen ihardungo naitzazue.

Eskerrak eman zituen egin zaion gorazarreagatik. Bere gogoz ordea, ez zen omenaldi hau ospatuko. Bere eritziz, pertsona bati, bizirik dirauen artean ez zaio omenaldirik egin behar. Arrazoia: gorazarrea egin aurretik eginikako gauzak onak izanarren, ondoren egin ditziagunak gizartearentzat gerta omen daitezke kaltegarri. Eta gauza xar horiek, lehenik eginikako mesedegarriak baino gehiago pixu omen dezaket balantzan ezarriek gero. Eta hori, hil arteino ezin omen daiteke ikusi —eta hala da, ez bait dakigu nehorik geroaren berri—, beraz omenaldi gero, hil ondoren behar omen da egin.

Bestalde, zera ere esan zuen, eta indar handian esan ere: "EGIA TXIKIAK; GEZUR HANDI bilakatzen dira".

Haurren egunean umeei zuzendu zitziagun, ipui kontari aritu zitziagun Joxemiel.

## TRIKUARRIETA

ECHABE

ETXABEREN Mueble - Etxea

Fuero'en Errepublikan

Urrutizkiak: 84 10 76 84 11 24

## ZARAUTZ

ERAKUSKETA

Erakusketa bi egon ukan dira irikita, gorazarre egunetan. Biak interesgarriak. Larrien erakusketa goi-mailagokoa dela? Konforme! Hori bai; hori egia da eta ezin genezake nehorik uka.

Dena-den, eta haurren esku-lanen erakusketari dagokionez, esan

## ERAKUSKETA

## beasain

### SAN JOANAK

Beasainen jai apartekorik ospatu ez arren, badu oraindik San Joan bezperak lehengo usarioen hondarrik. Hala-nola ilunabarrean sutzen diren alamartsoak (suak) ugari dira, nola baserri hala kale eta enparantzatan. Bestalde Barrendaingo enparantzatan egiten den alamar-tsoaren ingurumarian, San Joanen eresia (maritza) jotzen dute herriko ereslariak. Beharbada eta kutsu jatorra osatzeko, dantza-soka da falta dena (galdu delako). Bada herriko dantzari iaorik eta, ez ote liteke dantza-soka ateratzeko erantsi datorren urterako? Dantzariok duzne hitza.

Bestalde, non edo non jartzen dira oraindik lizar adarrak atalburutan. Saiatzu geroz, eta herriko etxe guztien atalburutan ezin bada ere, zerbait ugariago ikus gaitzake. Gogoa izatea nahikoa litzake. Eta azkenik, ia orain arte "San Joan arbola" deritzen makal enbor galanta ere, jarri ohi zen orain dela gutxi arte. Gaurko tresneriarekin ez litzake oso zaila horrelako bat jartzea. Eguberriaren Olentzaroa eta usariozko zerbait gauza berpiztu direnez, zaila ote, San Joanetako ohiturak berpiztea?

### ARRIARANGO JAIK

Beasaingo hauz bat da Arriaran. San Pedro egunez dituzte urteko jaiak arriarandarrek. Aurten goak ere ospatuak izango dira noski lerro hauek argia ikusterako. Ongi ospa ditzazutela. Nola-nahi ere, egitarau polita arriarandarrek antolatua. Hauzotarrek abesturiko Mezak, haizkora-joko, laisterketa lehiaketa, bertsolari, euskal abeslariaren saioak, txistulari ta dantzarien ekinaldiak, erromeriak trikitez, hauzotarren bazkari eta jolas horniturik. Egitarau egokia eta euskal sena duena arras. Halabainan ordea, akats handi samar bat somatzen da bertan. Euskal sena egitarau osoan zehar agertzen delarik, egitaraua bera espanezer idatzia dator osorik. Nolaz hori? Eta Norentzat? Hala, ikuskizun horietara erdalduak bakarrik joatea itxaro ote duzue?

Ea, urtego urterako horretaz jabeturik, euskeraz argitaratzen duzen! Gaineratikoan, on dagizuela!

### UDALEKUAK

Lerro hauek argitaratzerako, herriko haurrik gehienak etxetik kanpo izango dira zihurrenera. Bada aunitz udaleku mota jendeak aukera ahal dezan. Nerak dakit 6-7 bat desberdinen berri. Antolatze faltaz behintzat, ez da geratuko haurrik etxean! Ez alajaina! Hala ere, guraso gutxi somatzen bide da beroriez kezkatua. Nora, zertarako eta abar aztertzen, ez bide dira gehiegi saiatzen gehienak. Gurasoak heurak libreago geratzeko ez ote da askotan? Pentsa beza ba-koitzak.

### MURUMENDI

## baztan

### BERTSOLARIAK

Ekainaren 17-an ospatu dugu Elizondon bertsolari besta ederria Jai hau Nafarroako Diputazioako "Institución Príncipe de Viana"ren babesean egina da eta biltzen zena edo hobekiago erran, soberatzen zena Elizondo-ko Ikastolarako izan da. Gure bertsolari besta honen berria bazter guzietara edatu ginuen eta guk nahi adine jende bildu ez bazen ere ez da jendeak etzakielakotz. Behar bada denbora muku gertatu balitz orduan entzule gehiago bildu izanen litzake, baina eguerdiko berotu zuen eta nekazari bertsozale aunitzek beren belaietan bazuten non iosta eta belarrean lau puntuko bertsoa. Hala jende puska bat bildu zen eta sasoin hontako ez dago arras gaizki. Entzuleen artean baziren gipuzkoar gazte zenbaitzuk eta bai mugaz-bestaldeko anaiek ere. Deneri gure esker-onak.

Erran bezala hemen gintuen: XALBADOR, LASARTE, AZPILLAGA, MUGARTEGI eta hoiek in ba-

tean gure herriko bertsolaria KLE-MENTE.

Mugartegi bizkaitarra lehenbiziko aldia da Elizondora etorria dela. Azpillaga hiru aldiz izana da. Xalbador zazpi aldiz ari izana da Elizondon eta Lasarte hamabi aldiz joan den igandeko kantaldi horrekin. Lasarte eta Xalbador aspaldiko lagun zaharrak ditugu.

Gure bertsolari besta hortan erabiliakotz gaiak egokiak eta entzuleen gogokoak izandu ziren eta bertsolariak beren ahalmen guziaz erakutsi zizkiguten ordu bat eta hiru laurden lanean ari zirelarik. Gure goresmenak.

### BESTAK

Almandoztarrek beren herriko bestak ospatu dituzte. Ez dute suertirik izan denborakin. Lehenbiziko egunean (Besta berri) pilota partida ederrak egin beharrak ziren baina euriak ondatu zituen, legorrik ez izatearekin hori gertatzen da fronton edekiak arrixku hori du euri pixka egiten badu akabo partidak. Jendea ibili da eta gazteak sasoin ederrean ederki jostatu dira.

Aurten Uztailaren 22-an Jainkoa lagun Elizondon ospatuko dugu "BAZTANDARREN BILTZARRA". Aurtengoarekin bederatzigarrena. Aintzineko urtetan bezala aurten ere Baztan-go herrietako jende guziaz bilduko dira Elizondon eta baztandarrek in batean Euskal-Herriazpi lurraldetako jendeak ere denak etorriko bait-irte egun goxo bat igarotzeko nahikeriarekin Beti bezala izanen dugu euskarazko Herri-Meza. Gero karrozen ibillaldia, gero Mutil-Dantza eta eguerdian bazkaria. Scñu ta dantza eta jendea pillaka. Ikusgarrien artean erran dute etorri beharra dela "Ballet Anexa". Orain gauzak gerta daitezila zuzentasun osoan, elkar-tasun ederrean euskaldun onak bezala eta osagarri on batekin besta ederra egiteko.

M. IZETA

## mutriku

### ASPALDI HONTAKO KANTA

Mutriku mutrikuarroi oso atsegin zaigu tarteka-tarteka, noiz nahi, Atxukaleruntza abiatzea. Ez da oraingo kontua, ezta ere oraingoz galduko dena. Ziur gagoz.

Egun hartan ere horrela zen edo ta haruntz joateko asmotan nintzen, hobeto esan. Ilunabarra, herriratu nintzanean. Eguneroko amaitu ondoren han noa Erdiko kalean zehar, eta hontan bi mutiko behetik gora elkarri lepotik helduta, kantari. Une hartan oso jende gutxi ginen han inguruan eta aipatutako bi mutil-koak han zihoazen kantari, nonbait entzuna 3 omen zuten eta ez behin bakarrik noski, «Geuria da ta geuria da» abestia. Gaztetxoak ziren, oso gazteak, bi anaia, itsasoan zegoen marinela baten seme-koak eta ezerk kezkatzeke, kantari ari ziren. Berrito diot, egia balta, umeak ziren; baina haiengan itxaropen gehiago dut Malen jaietan «charanga» baten onodren «Geuria da ta» deihadarka ibiltzen direnengan baino.

Geuria da ta geuria. Gurea ez eta norena ote da ba?

rakurria dut orain denbora gutti herri batetako aikatearen hitza: «Udal-etxeak ez du zer ikusirik ikastolarakin. Etzaigu batere ardura arazo hori». Eta honen aurrean, bestalde, Nafarroako Diputazioaren joera. Hara zer nolako alde!

Mutrikuar, Mutrikuko familia apal hori, lerro kaxkar hauek irakurtzen dituzuenok, konturatzen ote gara...?

Mutriku, Herria, zurekin duzu zure izatea; heldu zaiozu zure nortasunari.

ULAZIA

## aztiria

Guipuzkoan zehar, herri txiki eta hauz batzuek badira, edo ezagutzen ez direlako edo ahaztuta dauzkagulako, apal-tasun eta ixiltasun osoan bizi diranak. Hoietakoa bat, Aztiria degu, Santa Marina izenez ezagutzen dana, emakume santu hau bertako eleizatxoaren zaindaria baita.

Nik, ezagutzen detanetz, Guipuzkoako lekuri zoragarrietakoa dela esatera, ausartzen naiz. Aizeleku eta Zarabain mendien egalean arkitzen da. Eta urutixego Aitzkorriko mendi lara ikaragarria.

Mendira, izadiaren haunditasuna ikustera joaten diranentzat, Aztiriara dijozenak, ez dira damututa jetxiko, Goiherriko herri gehienak bere azpian ikusten baitira. Berebillez joan nahi dutenentzat, berriz, erosotasun asko arkituko dituzte, bai Legazpia aldetik, bai Segura aldetik, ibillaldi labur baten ondoren irixten baita bertara.

Hauz hau hamalau baserrik osatzen dute. Beste leku askotan bezela, baserriak bakarrik bizitzetik ez eta Legazpiako fabriketan bere eguneroko ogia irabazten dute.

Urtero bezela, aurten ere, Uztaillaren 18 an, Santa Marina egunez, hauzoko festak ospatuko dituzte. Badute hauz hoietakoa festak herri haundiagokoak ez duten zerbait. Egun hontan Aztiriako seme guztiak, bizitzaren gora beheak beste herrietara eman dituztenak, beren baserrietara eta hain maite dituzten txoko hoietakoa bihurtuko dira. Hauzoko guztiak familia bat osatuko balute bezela. Eta poz eta alaitasun giroan egun zoragarria igaroko dute.

Egun horretan zer ikusia ere izanen da. Herri-Meza, bertsolariak, dantzariak, erromeriak, bolariak eta abar... Bolari onak sortu dituan hauzkoa da. Orain dala bi edo iru urte, bertakoak diran Jose M. Aguirre eta Juan Zabaleta, Guipuzkoako txapelidun izan ziren. Gaur egunean bola-txapelketa ipiniko ez balitz, hauzokoak bere estetan hutsune haundia arkituko luke.

Beste urte baterako bertako gazteei galdera bat egingen nieke: Zuen eta hauz guztien euskal zaletasuna ezagutu ondoren, zergatik Euskal Jai berezia ez antolatu hortarako hain egokia daukaten plazan, pagu urtetsuen itzalean?

Aztiriatarrok eta egun horretan bertara bilduko zeraten guztiok, festa alaiak igaro ditzazutela. Eta zu, irakurle, edozein egunetan eta batez ere festa egunean hauz hortara azaltzen bazera, geldi alditxoak egin zazu eta ez zera damutuko.

AIZEPE

## azpeitia

### LANSARITUEN PAUSALEKUA

Ekainaren 24an, Sanjuan egunez, zabaldu ziren Azpeitiko lansaritu-tzat engindako "AITONENA-ren" ateak. Benetan egun atsegingarri eta alai izan dugu aurtengo Sanjuan. Eguraldi eroso. Urrustil, Sanjuandegi eta Oñaz, inguruko hauzotan, su eta garrartearen urteroko jaiak antolatzen, eta Azpeitiko herri barruan lansaritu edo gure guraso jubilatutako maitagarrien omenez, egun berezi bat ospatzen.

Goizeko bederatzietan Herriko musikariek kalegira goxo bat egin zuten Sanjuanen zortziko doinu entzungarriaz, herritar guztiak alaitzen zirelarik.

Hamarretan Mezanagusia. Errotora jaunak bere esker ona agertu zien lansaritu guztiei. Mezanagusi honetan parte har zezaten azpeitiar erligioso sail bat deiturik zen; baina guk ezagutzeke ditugun arazozetatik, inor ez zen etorri.

Mezanagusi ondorenean, Plaza txikian, hau da AITONENAREN aurrez-aurre, Beterramista eta Jesubitenetako neskamutiek dantza saio polit bat eskaini ziguten. Ikusle guztiok txalo beroak jo genizkien hain palamentu eta arreta haundiz dantzatu zire umetxo jator haei. Honelako dantza grina gaztetxoan giroan txertatzen bada; geure geurrak ditugun dantza herrikoiak ez bide dira galduko.

### AITONENA

Izen egokiz bataiatu dute jubilatuen pausaleku eder hau. "Aitona", "Amona" etab, gure hizkuntzaren hitz samur eta errespetagarriak izan dira betidanik. Kondairan zehar beranuen bitartez jaso izan dugu orainarteko kultur eta jakituria guztia. Belanaldiz belanaldi aitona-namona izan dira gure Herriaren ardatz. Hara hor oraintsu Atamen omendu duten Jose Miel Barandiaran Euskal Herriko aitonen AITONA, gure kulturaren zutabe tin-

koa. Bere larogeita hiru urtetan ere zientifiko guztien gidari.

AITONENA, azpeitiar guraso langile hauek aspaldian ongi merrezia zeukaten leku atsegingarri honek, ehun metro kuadratu ditu, Urola errekarren saietean dago terraza eder lasai bat bere begira duelarik. Anton Balberdek marraztutako Saninazoren irudi bat ere badu. Eta berehala Muin uztargileak bere "obra" bezala uztarri eder bat izekiko du nekazariaren tresneriari omen eginaz.

Juanito Juaristi eta beronen emazteak zuzenduko dute, aitonen etxe berri hau. Hara hemen noiztik nora zabaldua egongo den: aste eginetan/hamar ta erditatik hama-biak arte, eta hiruretatik bederatzia arte. Jaiegunetan berriz/hamar ta erditatik ordubateraino, eta hiru ta erditatik bederatzia ta erdiak arte.

AITONENA izan dedila gure guraso langileek beren bizitza honetan izan dituzten neke eta izerdi guztien atseden toki. Bertan egin dezatela habia goxo, samur eta baketsu, hemenaldiko bizitzaren babesleku.

AITONENA izan zaitezela, gure guraso maite hauek babestu, alaitu eta zerbituko dituzun ETXE amultsua, zahartzaroaren irripa ezitua, nekeordainen sari ezaugarria.

AITONENA udako berostegorrian gerizpe, negubeltzeko izotzean epel, udaberri itxaropentsuan heze, aitona-namonen solasleku, gazteen errespeta.

### "GURE AMETSA"

"Gure Ametsa" bazkuna izan da "AITONENA" egin zedin gehiena kezkatu eta arduratu dena Ametsa 1964gn sortu zen, gaurregun hogeita hemezortzi bazkide ditu. azkide edo lagun hauen artean, nahiz eta beren izenik agertu nahi ez izan, Azpeitiko herriaren alde hamaika lan egiten ari den mutil jator eta langile presturik bada. Ametsa talde hau izan zen hain zuzen, gure Herriaren antzerki eta dantza berbizitu zituen. Erdi hili-ko zegoen gure folkloreak arnasa bizkortu zuten Azpeitiko gazteria, eta arnasa haren garra ez da oraino itzali, gaztetxoan artean dantzari ederrik badator halazankoa!

Bidezko iruditu zaigu beren ingurua hurbildu eta jakinminezko galderabatuek egiteari. "Ametsa-ko" lagunak pittin bat lasaitu diranean, beren lehendakari Imanol Egiguren buru dutelarik, gure galderei erantzunak hasi dira.

—AITONENA areto eder hau eraikitzeke zer bide urratu dituzue?

—Zahar jubilatuei leku eder bat egitea aspalditxoko ametsa genduen. este herri askotan bazenkatzen baina gurean ez zegoen ezertxo ere Herriko Udaletxekoekin eta elizgizonekin hitzegin genduen. Baita gazteekin ere hitzegin genduen berauek garai batetan erabiltzen zuten lekua zenez gero ez genduen gazki gelditu nahi izan. Guztion oniritzia jaso genduenen hasi gina jo ta ke lanean.

—Izan dituzuen laguntzaz Konforme ahal zaudete?

—Herriak oso ondo lagundu digu. Nahiz eta, beti gerta ohi dena, zenbaitzuen laguntza guk pentsatzen genduen bezain bikaina ez izan.

Langile bakoitzak hogeita duro eman zuen. Nagusiei langileko berrogei duro eskatu zitzaizen Koperatik, lantoki pribatuak, Udaletxeak eta merkatariek etab, guztiok lagundu digute; baina izenez agertzerik nahi ez duten batzuk ere laguntza ederra eman digute.

—Jaso dituzuen laguntzak nahiko izango ahal dituzue egindako zorra estali dezazuen?

—Baita esango genduke. Gaurko miloi bat eta hirurehun mila pesta eskuratutik dugu. Oraindik laguntza guztiak ez ditugu jaso. Diru gostua berriz miloi bat eta seirehun mila pestakoa izango da, noski, gutxi gorabehera esaten dugu. Hartu dugun eta hartzeke da dukagun laguntzaz estaliko dugula uste dugu diru zor guztia. Jubilatuek hartzen duten egunean beraz; batere diru zuloz gabe beren arau eta eraz antolatu ahal izango dute.

—AITONENA hau ondorenean zer erataro antolatu izango da?

—Begira lehenengoz Azpeitian baditugu bi milaren bat lansaritu, hauek nahi duten guztiek libre dute sarrera. Kontserje edo arduradun jator bat ere badugu. Honez gainera jubilatuen arteko Batzorde bat dago zazpi lagunek osatua.

—Beste zerbait erantsi nahi ahal dezute?

—Bai noski. Jaialdi honetara Bergara eta Azkoitiko jubilatuen ordezkariek izan ditugu: Asko poztu gara herri haietako ordezkariek gure artean izateaz. Gure esker ona bada Bergara eta Azkoitiko jubilatuen etorri zaizkigun hauei, eta gainontzean hainbeste lagundu diguten guztiei. Gure soziedadeko ez diren K. Unanne eta I. Alberdik ere majina bat lagundu digute. Guztioi eskerrik asko.

Eskerrik asko gure aldetik ere Ametsako adiskidei, Z. Argiaren izenez joan gintezen deitu ziguten, bestetik bedenkazioko mahai gainean bi libururen erdian Z. Argia ipini zuten. Hau agian zertzelada nimio bat izanen da; baina Hor dago...

ANATSAN

## irakurleak mintzo

### ATAUNGO GAU PASA

Ez hain ona, baina eguraldia ez zitzaigun gaizki atera gau hartan. Bazter guztiarik, Euskal Herriko ertz orotako gazte jendea bildu zen zelai bikain hartan. Lau milatik gora ginen, dudarik gabe, Barandiarani egin zaion omenaldian elkartu ginenok.

Nire ustez gisa honetako jaialdiok badute alde onik nonnahitik begiratzen zaiolarik ere. Zergatik ote? Elkartu ginenok, ez da gezurra, gazteri kezkatua osatzen duen multzokoak ginen. Gainera, apurrenbat kendurik, euskaltzalasunez taxuturik genduen geure pentsakera.

Hemen ez naiz hasiko kantarien berri ematen, jadanik hori guztiok dakigulako hain zuzen. Aitzitik, han nabari zitekeen gogoeta-giroari buruz ihardungo naiz. Izan ere, bazen han oso gogoz egon ez zen zenbait, batipat, kantuen esanahiri zegokionez. Hauek ziotenez, burges kulturaren agerpen soila omen zen kantuek ziotena.

Eta horrela, areago ezin etsirik agian, hirurak aldean eszenariora igo eta zerbait egin asmoz hasi zitzaizkigun konformagaitz hauek. Zihur ezin esan dezaket ze asmorekin igo ziren, mitin bat botatzeko ala jaialdia desegiteko. Nik neuk azkeneko hau uste. Ez bait zuten beste egiteko ausardirik izan, egin nahi izan bazuten ere. Irulnako egoeraz edo mitini ekinen ziotelakoan nengoen, baina ez, azkenen deus ere ez. Jaialdia ezurratu eta kito.

Bestalde, batekin eta bestekin mintzatu ondoren, neu ere ez nintzen erabat pozik atera eskeini zigutenagaitik. Badakit ze panfletada eskatzen zuten beste hoiak, eta haatik, eta beste zerbaitagaitik arbuatuko ditut. Hala ere, ez naiteke ahantz, kantu bat baloratzekean bi gauza kontuan eduki behar ditudala, besteak beste. Artetasuna bata eta politikotasuna beste. Lehena ederki burutua egon zen, ez bigarreña ordea. Hara hor, akatsa, ene ustean.


Beste hoiak berriz aski zale euskal jaialdia suntsitzearekin, antza denez. Zergaitik ez ziguten adierazi zer den eta nolako behar lukeen izan euskal musikaren arloa, egin dagoena gaitsetzi baino lehen? Jakina, betiko leloa, theskeria. Arlo hontan besteetan bezalaxe, urrats berrien bilaketari heldu behar zaio. Eta hor denon laguntza fina estimagarri zale kantariei; baina zinez jokaturik, eta ez langileen sasi-interesaren izenean euskal kultura oro gaitsetzirik.

Joxe M. Odrizola



Donosti'ko  
Erri-Etxe'ko Currerki Kutxa

## EUSKAL IRRATI SAIOAK



Banen baneko azikai  
Ongarri ta abonoak  
Belar Zuloak  
Erosi edo berritzeko diru  
aurreratzea  
Baserril, lur-tresnak ta abar  
Torelavega'ko Perira joan  
etorriak

**Baserriaren alde**

**FAGOR**

edaria  
epela dagola?  
**FAGOR'ek**  
oztuko  
du bereala

## MITXELENA

ORDULARI ETA BITXITEGIA  
Dei honi jarraituz bazatoz  
zure erlojua KANARIAS bertan  
baño merkeago erosiko duzu

Matxin Arzu, 1

ONDARRABI

## ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK  
URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA

Urrutizkiñak:

Etxekoa 65 19 60

Landolakoa 65 19 33

URRETXUA

Urrutizkiñak:

Landolakoa 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalekarregi, 7<sup>gn</sup>



YOGUR

# GURELESA

GOGOZKOENA



baserritar-  
entzat  
zozketa

PUBLIWAJSC



Dendariek beren zerbitzuak eta ar-  
remanak gaurko momentorai dagokion  
etan zuzendu ditzaten "Caja de Ahor-  
ros Provincial de Guipúzcoa" etxeak  
DIRU-KONTU BEREZIA antolatze du  
dendarientzat. Ara bere ondoren orak:  
- Zerbitzu ugariak:  
ondasunak zainduaz, letraen kobran-  
tzak erraztuaz, ordainketak zuzenduaz,  
atzerriko diru arazoak konponduaz,  
zerga, aseguro eta abar ordaindu  
ditzakezu bertan.  
- Argitasun eta informazioa noiz nai:  
eguneroko berria jaso dezakezu.  
- Gure artximanak eroso eta erraz  
egino dituzte, 80 ofizina bait ditugu  
zure zerbitzurako.

## DIRU KONTU BEREZIAK DENDARIENTZAT

Benetan onurakorra zaizu: zerbitzuak ugaltzen dituelako,  
arremanetan erreztasunik izango duzulako, noiz nai  
argibide edo informaziorik jaso dezakezulako.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL  
DE GUIPUZCOA



## SARIAK

### lenengo saria

LAND-ROVER, berebilla  
edozein bidetarako, neu-  
rriz, luzeena, 62 zaldidu-  
na, diesel-motorra, meta-  
lezko zapaia ta 900 kgs.  
eraman ditzakena.

### bigarren saria

BIURKOR - TRAKTOREA:  
18 zaldiduna. Goideak,  
irautilleak eta erakartze-  
zirkak, osatzen dute trak-  
torea.

\* diru epea: dagonilla'ren 14 arte



Donosti-Currerki-Kutxa



# ELIZAREN BERRI

CORPUS CHRISTI EGUNEKO PROZESIOA BAZTER UTZIA

Egunkarietatik jakin genuenez, Donostian eta Irui-  
nen ez zen izan aurtien prozesiorik. Zoritxarrez, era-  
baki hori hartu zutenen esplikazioak ez dugu jasotako.  
Bakar-bakarrik, Loiolako Inazio Sainduaren eta Xa-  
bierbo Frantzisko Sainduaren apaiz elkarteen "intzi-  
ri" negartiak entzun ahal izan ditugu.

Eta bazen esplikazio beharrik, uste dut. Nik be-  
deren, izan dut, horren arrazoinik eskatu didanik.  
Neure modura azaldu behar izan dut. Ez dakit zuzen  
eman ote dudana gogoratzen ikusmodua.

Hitz gutxitan esanda, honela interpretatu dut go-  
tzaien erabakia. Barkagarri bezait esplikazioa hitz-  
erdika eman beharra.

a) Horrelako elizkizunetan, denbora luze, aurre-  
ra samar ibili izan den zenbait jende, fedez ez, baina  
erlijioaz baliatzeko asmoz ibili bide zen. Horrelakoei  
bidea zuzenean eta aurrez-aurre moztea, gogortxo zi-  
tekeen. Irtenbidetat, elizkizuna bera kentzea asma-  
tuko zen. Horrela, delako jende horrek ez zuen au-  
kerarik berea egiteko.

b) Erabaki horrek, ordea, teologiazko arrazoin sa-  
konago bat zukeen hondo-hondoan: elizkizunak, mis-  
terio baten seinale edo ezaugarri dira. Seinale horiek  
fededunentzat dira, bakarrik, baliozko. Horrez gero,  
kristaudi egoera gaituztua dugunez gero, gaurko gi-  
zartean horrelako prozesiorik egitea zentzugabekeria  
litzake.

Badakit, arrazoinbide hori ez dela matematikazko  
frogantza. Eta goian aipaturiko "intziri" zaleak be-  
zalakoak ez ditu konbentzitu. Baina, esanen nuke,  
gaur Eliza eman dudana irizpidetik doala.

## GAURKO ELIZAREN APAIZ ETA ZERBITZUGINTZA PROLEMA

Denok dakigu, apaizak gutxiagotzen ari direla  
munduan: apaiz berri gutxiago delako, batetik, eta  
apaiz "zahar" askok apaizgoari uzten diolako, beste-  
tik.

Egoera horri bi ondorio darizkio besteren artean:  
kristaua bere fedea pertsonakoiago eta erantzukizun  
handiagoz bizitzera behartua dela, eta apaizak, be-  
ren aldetik, beren zeregina bir-aztertzea behartuak  
daudela.

Egoera hori dela eta, han eta hemen, ministerio  
edo zerbitzubide berrien beharra nabari da. Lehen,  
apaiza zen zerbitzu guztien arduradun. Gaur, ezin-  
bestean, zerbitzubideak ugaritu beharra ageri da.

Arazoa, zerbitzubide berri horietarako, nondik no-  
ra jo eta zein kriterioz jokatu da. Frantzia, aldiz-  
kari batek zerbaki bat osoa eskaini dio oraindik  
orain arazo horri.

Bi gauza ematen dira garbi eta ziurtzat:

a) Zerbitzubideak berritzekotan, ez da abiatu be-  
har, ez apaizetatik, ez eta kristau elkarleen koordin-  
atu beharretik, tokiko kristau elkarleen premietatik  
baizik. Alegia, kriterio nagusia, kristau elkarleen bere  
baitan dituen premiei erantzutea da;

b) Kristau elkarleen zerbitzugintza lagun guz-  
tien egitekoa da, eta ez batena edo besterena baka-  
rrik. Eta zerbitzugintza bereziak ez du bilakatu behar  
indarbidetako pribilegio.

Noski, beraz, laikoan zerbitzuek gain, bada orde-  
natzetik datorren zerbitzugintzarik: diakonia, apaiz-  
a, gotzaiak. Zerbitzari mota honek, hauxe adieraz-  
ten du: delako kristau elkarlea Elizak ofizialki ha-  
lakotzat hartzen duela.

Horrelako zerbitzariak, honela dio kristau talde  
batek: "Zerbitzaritza erabat geure arteko denon bat  
nahi dugu; laiko-apaiz edo apaiz-laiko antzeko zer-  
bait litzakeena" (alegia, ezkondua ala ez, ez dio axo-

larik). "Gure elkarrekin nahiago luke apaizik gabe  
geratu, tarteko bat ez izatekotan".

Eta Xabier d'Arhuys-ek dioena: "Zerbitzariak  
adierazten duten Elizaren egitura hierarkiko eta mo-  
nolitikoak eskema politiko bat baieztatzen du: agin-  
tean elite intelektuala eta burgesa duen eskema po-  
litikoa... Gakoa ez da. Nolako apaiza? Ez eta, no-  
lako Eliza? Baizik: nolako gizartea? Iraultza po-  
litikazko giro batetan nolatan izan daiteke Ebanjelioa  
sinesgarri? Fede mintzaera berria asmatu behar da...  
Halako Eliza batek, zapuzten dugun unibertso kul-  
turalari eusten dio".

Maria guztiz garbiaren Oblatoen goi-nagusia ere,  
Richard Hanley alegia, zorrotz mintzo da, zerbitzu-  
gintza berria eskatuaz, oraindanoiko "elitismo arti-  
fiziala" hautsiko lukeena.

Bizitza guztirako konpremetitu nahi ez duten gaz-  
teei buruz, honela dio erlijioso horrek berak. "Go-  
tzaiak prest ahal daude 5 edo 10 urteetarako orde-  
natzeko norbait? Zergatik larritu halako ikuspegiak?  
Ezar ahal dizaiokugu pertsona bati psikologiaki ezi-  
nezko zaiotik? Betekizun horiek, Elizaren onerako  
ala geure burua ziurtatzeko ezartzen ote ditugu?"

## ABORTOIA KATOLIKOEN ETA PROTESTANTEEN IRITZIZ

Aspaldi honetan, arazo hau bizi-bizi dago Fran-  
tzian. Parlamentua legea berritzekotan da. Bienbitar-  
tean, eztabaida hor dabil kalean, egunkarietan, te-  
lebistan bertan...

Ekainaren 7an, teologo katoliko bat eta teologo  
protestante bat buruz buru agertu ziran telebistan,  
aipatu arazoaz norik bere arrazoinak emanki: Riquet  
aita, katolikoa, jesulaguna, eta Andre Dumas, pro-  
testante artzaia.

Riquet-ek autoritate arrazoinbidea dakar lehenda-  
bizi: Elizak ez du onartzen haugaltzerik; horretarako  
bi arrazoin nagusitan finkatzen da: "Ez duzu inor  
hilko", batetik, eta ahula eta errugabea babestu be-  
har da, bestetik.

Dumas artzaia ere, kontuan hartu beharrekotzat  
jotzen ditu arrazoin horiek; protestanteek ere hain-  
tzakotzat hartzen dute Jainkoaren agindua. Baina,  
bestalde, guztiz hunkigarri zaio beste alderdi hau:  
Eliz-gurasoek abortoa gaitzesten badute, indartsuaren  
aurrean ahulari babesa eskaintzearen da. Eta hona-  
la galdegiten du: Katolikoan jarrera, arazo honetan,  
ez ahal doa, hain zuzen, printzipio horren aurka, ez  
ahal doa ahularen kontra?

Izan ere, Dumas-en iritziz, abortoarene kasuan, bi  
ahultasunen aurrean aurkitzen gara: haurraren ahu-  
tasunaren aurrean, eta amaren ahultasunaren aurrean.  
Protestanteak bi ahultasun horiek hartu nahi  
ditu kontuan. Ezinbestean bataren alde jokatzeko, pro-  
blema erdizka hartzea litzake, eta "legalismoan" erro-  
tzea litzake, dio. "Morala —dio Dumas-ek— ez datza  
gorabehera guztietan arau bat errespetatzean, kasu  
bakoitzean erabaki bat hartzen jakitean baizik".

Riquet-ek honela erantzungo dio: ama emakume  
heldua da, ez dago bakarrik, gizartean bizi da, ho-  
nek laguntzen ahal dio. Gainera, herstualdian egon-  
da gero, haurra gordetzera jarri den emakumeak  
egunen batetan "amatasunaren poza eta antustea"  
sentitzen ditu, esperientziak erakusten digunez. Bes-  
talde, pertsona heldu batek, erantzukizun bat har-  
tzean, ondorioak ere onartu behar ditu.

Biak bat datoz abortoa "frakaso" bat dela esa-  
tean. Baina, katolikoak, haugaltzea aurrerapenari eta  
zorionari bideak hestea dela esanen du; protestan-  
teak, berriz, frakaso lehena gogotik datorrela esango  
du, eta horrelako egoeran haurra onartzera behar-  
tzea frakaso lutzatzea besterik ez litzakeela.

Ikusten denez, arazoa ez da hain ximplea. Baina,  
ageri dena, hondo-hondoan, katolikoa maila batetan  
ipintzen dela (abstrakto mailan?), eta protestantea  
beste batetan (maila biziagoan).

Amaitzeko, esanen nuke, teologo katoliko askok  
gogotziago onartuko lukeela protestante horren jarre-  
ra, katoliko horrena baino.

AMUNSA

## ORAINDIK ERE ERLIJIOAZ IDAZTEN?

Bada denbora zenbait Eliza eta teologia gaietaz Z.A.n astero  
idazten hasi ginela. Kristau sinesmenaren arazo garrantzitsu-  
tako batzuei buruz zerbait esaten saiatzen gaza astero, hobeki-  
xeago edo gaizkixeago.

Gure lan apalekin aurrera jarraitu aurretik gure burua justifi-  
katu nahi genduke: zergatik hartu dugu lan hau? Zer dela ta  
astero astero gai erlijiosoekin jardun? Jakin arazi dugutenez bati  
baino gehiagori bururatu zaio galdera hori. Eta galdera bakarrik  
izango balitz, gaitz erdi. Baina askorentzat ulertezina izanen da:  
lehen ere euskal literatura gai erlijioso berterik zegok, eta orain  
aldizkariak berriro gai erlijiosoekin betetzen!

Gure asmoa ez da erlijioak eduki dezakean eskubideak defen-  
datzen hastea. Ez daukagu zer defendaturik, zer emanik, zer es-  
kainirik baizik. Horrek bultzatzen bait gaitu lehen-lehenik erlijioaz  
idaztera: sinesdunak izateak (eta ez apaiz izateak, norbaitek pen-  
tsa lezakeanez). Ez sineste agian sineste baino izen hobe da  
garai batean gure burua sinestuntzat aitortu nahi dugu eta aitort-  
zen dugu, kristau noski. Funtsean hau sinesten dugu: gizon bai  
izan zela, Jesus Nazaretokoa deitua; gurutzet batetan hil zutela  
agintariak eta tradiziozaleak jasan ezin zutelako; Jesus hortaz  
apostoluarik piztu zela aitortzen dutela eta aitormen hori Elizaren  
(gure) oinarria dela eta hasiera.

Sinesmen hau aitortzeak konbenzimendu bat darama berekin:  
sinesmen hori, kristau sinesmena euskal herrigintzan kaltegarri ez  
bainan onuragarri izan daitekeela. Kristau sinesmenak gaur eguneko  
herrigintza osatu dezakeala uste dugu, eta gerokoan ere sines-  
men eta Elizarik gabeko Euskal Herri bat baino sinesmen eta  
Elizarik baduen Euskal Herri bat nahiago dugu. (Arazoa ez da si-  
nestun izan beharra euskaldun izan ahal izateko, ezta alderantziz  
ere: ez sinestun izan beharra euskaldun izan ahal izateko. Arazoa  
beste hau da: gaur egun Euskal Herrian kristauak bagarela onar-  
turik, kristau sinesmen hori herrigintzarako oztopo ez bainan la-  
guntza izan dadin ahaleginak egitea). Sinesmenak gizona eta gi-  
zartea osatu egiten dituela uste dugu, horregatik derizkiogu zu-  
zen sinesmenaren alde zerbait egiteari. Bi arazoak hauek eraman  
gaituzte lantxo hauek idaztera.

Gaur egun kristau sinesmena aipatzen denean guztiak ez dute  
gauza bera pentsatzen. Horregatik, sinesmena eta Eliza euskal  
herrigintzarako kaltegarri ez bainan onuragarri izan daitezkeela  
esaterakoan Eliza eta sinesmen konkretu bat ditugu buruan. Eliza  
orain arte izan den bezala, adibidez, gauza askotan kaltegarri izan  
da eta hala jarrai dezake, eta sinesmena bera ere bai: magikoki,  
dogmatikoki eta klerikalki ulertua den bitartean kaltegarri izan  
daiteke. Ezin hasi gindezke orain onuragarria dela diogun sines-  
mena nola ikusten dugun zehatz-mehatz azaltzen. Artikulo honetan  
esan dezakeguna zera da: bai sinesmenak, bai Elizak berriro izan  
aldatu behar izugarria dutela etorkizunean izan, esanahiko izan  
eta onuragarriak izan ahal izateko. Berritze eta aldatze horiek,  
gure iritziz, ez dira nolabaiteko teologia politiko batekin egiten.  
Horrelako teologia bat beti ere defentsan gelditzen da. Arazoa  
ez da konpontzen momentu batetan herriagan sinpatia duen po-  
litiko talde batekin egiten duena oneritziarik eta onetsirik. Hori ba-  
karrik behintzat ez da nahikoa.

Astero-astero erlijio gaietaz artikulo bat idazteari ekitearen  
beste arazoak bat hau da: batetik Elizak eta sinesmenak etorki-  
zunik izan nahi baldin badute aldatu beharra daukate, eta bes-  
tetik herrigintzan onuragarri izan behar baldin badute zentzu jakin  
batetan burutu behar dute beren aldeketa. Horregatik ez genduke  
nahi Eliza eta sinesmen arazoak betikoen eskuetan gelditzea, hoiak  
ondo derizkiotena egin dezaten, erremediorik ez dagoenean hoiak  
egindakoaren kexu izateko.

Hauek dira batez beste artikulotxo hauek idaztera bultzatzen  
gaituzten arazoak. Eliza aldatu beharra dagoela dudarik ez dago,  
sinesmena aldatu beharra dagoela ere dudarik gabeko gauza da.  
Nola? Artikulo hauetan hori argitzen saiatu nahi genduke. Ba da-  
kigu askotan nahiko aldrebes adierazten ditugula gauzak, eta lan  
hauek ez direla beti oso ulertezak izaten. Halaz ere, artikulo  
hauei amaiera emanen diegunean euskal kristauen artean honako  
konbenzimendu hau sortzea lortu baldin badugu, pozik izanen ga-  
ra: gauzak diran bezala izateko arazoak gehiegirik ez dagoela,  
beste eratara ere izan daitezkeela, beste nolabaite izan behar du-  
tela, eta aldatze lan hortan gutako bakoitzak, kristau bakoitzak  
egin behar duela lan, ez apez, gotzai eta horrelakoek bakarrik,  
kristau bakoitzak eta danak baizik, eta ez apezengandik eta go-  
tzaiengandik jasotako baimen edo enkarguz, berez dagoikolako bai-  
zik, Eliza izanik, Jesussek berak emandako enkarguz baizik.

Joseba Arregi

Jexus Mari Mujika

## ZERUKO ARGIA SALTZEN DA:

ELGOIBAR  
M. Gorostiza

EIBAR  
Angera  
Markina  
Iriondo  
Eguren  
Gisasola  
Barela  
Alday  
Aranburu  
Estankos, 11  
Isasi  
Simon  
Amans  
Uraui  
Urizar  
Siglo XX

## Ez Merkenak

### Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira  
ganadu on, indartsuak,  
Eta nora jo jakin bear du  
baserritar burutsuak,  
Berebiziko aragi pillak;  
gafiera esne putzuak,  
Oiek guziak berekin ditu  
Fanderia'ko pentsuak.

## FANDERIA

ERRENTERI

## LOTARAKO-GELAK

hilean 750 pezetarekin

AMUEBLADORA

## COMERCIAL HISPANIA

Iorik egin gabe dago...

...zuk lo egin dezazun.

Moraza, 3 eta 14-San Marzial, 12

DONOSTIA

IRUN

askoz merkeago eskura ordainduz

GARRAIOA DEBALDE PROBINTZI BARRUAN

# NEKAZARITZA AN ETA EMEN

Jose Alkiza

## ZERRI ASTEA

Ez beza inork irri gaiztorik egin izenburu ori ikustean. Lau ankako zerrietaz mintzatu dira aste guztian, eta gu ere, oietaz ari gera emen; bi ankakorik ez dugu aipatu ere egiten. Bada ez bada ere.

Delako aste ori, maiatzaren 9tik 14era ospatu zan Leridan. España guztik bildu zan jendea, zerri azten ari diran ganaduzaleak, noski.

Ez da batere arritzeko orrelako batzarra Leridan egitea; izan ere zerri granjarik aundienak eta aurreratuenak Kataluñan dardela edozeinek daki eta alderdi artako ganaduzaleak dira, aurrera begira gogor jokatzen ari direnak.

Itzaldi ederrak eginak dituzte eta zerri azten jarduteak dauzkan zailtasunak eta ematen dituen burukomienak garbi agertu dira.

Baiña ez ziren itzaldiak bakarrik izan, feria ere izandu zen San Miguelen, zerri konkursoa ere bai, onenak izendatze eta sariak emate eta guzti.

Ona emen an azaldutako zenbait idea.

Ganaduzaleok, beren erantzunkizuna gutxi aipatzen dute, esan zuen batek, baiña gobernuari eskabideak egin bai, Gobernuaren laguntza beharrezkoa da, zerri azkuntza au aurrera aterako bada, baiña baita teknika obeak erabiltzea ere, zerriak azteko sistema obeak erabiltzea.

Zerri aragiaren produzioa, zioen beste batek, asko igo da Españian, % 43, lehen 100 kilo sortzen baziran, gaur 143 sortzen dira, alegia.

Bai jendeak jan ere. Lehen pertsona bakoitzeko 6kilo jaten ziran urtean, orain 13.

Ganaduzale auen buru dan Pedro Chias jaunak, zerri granjak dauzkaten enpresarioen elkarteko buruak, alegia, zerri aragi ona sortzen dala gaur azpimarkatu zuen, eta ori aitortu behar zaiela ganaduzaleei, ahalegin asko egin dutela ortarako eta.

Baita beste au ere: Españian bertako ganaduzaleak, kapaz direla bertan behar dan zerri aragi guztia sortzeko, kanpotik ekartzen ibilli gabe.

Emen dago, noski, koska. Baita aunditsua ere. Onen ematen die min zerri gizontzera jarrita daudenei.

Azkenik onekin bukatu zuen: ganaduzaleok beren eginkizunak jakin behar badituzte eta bete, beren eskubideak ere ezagutu behar dituztela eta gozatu.

«Kofradikoa danak jaso dezala kandela» au nik esango nuke.

Aste ontan erabili diren gaien bilduma egitean, ganaderiako sindikatuaren lendakariak, zerri azkuntzari buruz gaur gaurkoz dauden modurik onenak azaldu zirela, esan zuen, eta ganaduzaleok jakinaren gainean jarri. Orrek nazioan dauden zerri taldeen obetzea dakar eta ugaltzea, eta azkenik bentaja, ez ganaduzaleentzat bakarrik, jale guztientzat baizik.

Zerri azleok ahalegin guztiak egiten ari dira eta, azaldu diren aurrerapen guztiak eskuratzea da beren afana. Alere kezkatu daude, trantze txarrean.

Zerri gizontzera jarrita dauden asko, zalantzan dabiltza aurrera jo ala dana bertan behera utzi. Bildurra sojaren garestitzeak ematen die, pentsua gora dioa. Zerri gizona saltzeko garaian, ordea, kanpotik ekarritako zerri aragiak egiten die konpetentzi.

Lehenbizi artu behar litzakeen neurria da, zerri aragiaren prezioak aztertu, eta oraingo kostuak Kontuan eukita, prezio berririk izendatu. Bitartean, kanpoko zerri aragia saltzeari utzi.

Kanpotik ekartzen dan kilo aragia 40 peza kostatzen zaio gobernuari. Kanpoko aragia primatu beharrean, ortan gastatzen dana, bertakoa primatzen emango balitz, kapaz lirake zerri gizontzailleok, nazioan behar dan aibeste aragi sortzeko.

Orra or Leridako zerri astean esan ziran zenbait kontu. Ez noski danak, Gure artean banaka banaka baserri askotan daude zerrama batzuk. Polliki uzten dutela esango nuke, baiña batzutan; zerrikumeen prezioak gora behera asko ibiltzen baititu. Pentsuaren garestitze onekin ez dakit zer geratuko dan.

Umeak, amaren titiaz gainera pentsu piska bat nahikoa dute bi illabetera arte, baiña amak jan egin behar du eta txertaldea azten ari denean asko.

Bestalde, gaitzak ematen du bildur eta buruhausterik franko.

Azken bolara ontan bertan, zenbat zerri zuloan sartu ote da? bitartean feriak itxita. Nora saldu zerrikumeok? eta zenbatean? Zerrikumeak berriz, utsa behar du ziolo akabatzeke.

Lasai bazera eta gibel freskoa baduzu, tira; baiña berehala, estu eta larri jartzen bazera, obe duzu ez sartu ontan, bestela ez duzu sustotarako aña egingo.

## B E R R I A K

### SOJA IRINA

Soja irinaren eskasiak koloka jarri ditu, oillategi eta pentsu fabrikarik gehienak.

Badakizue lehen arrai iriñez osatzen ziren pentsuaren proteinak, orain sojak osatu beharra dagoela, antxobarik ez baitute lehorreratzen arrantzaleak.

Lehen ere, urteberrir inguru ortan, larrialdi izugarria sortu zuen sojaren garestitzeak, pentsuak erruz igo ziran, eta azkenean oillategiak lehertu eta lur joko ez bazuten, gobernuak soja primatu egin zuen.

Arazoa ez zan konpondu, itxura danez; adabakia jarri zitzaion, eta maiatzera arte iraun du. Orain berriz zarratatu da, eta beste adabakia bat erantsi diote, urrira arte.

Katea ola doa.

Inork ez du nahi arrautzak eta oillasko aragia garestitzerik. Oietek dira gaur jakirik merkeenak eta langille arruntak ere zerbait jan behar du.

Arrautza eta oillaskoa ez garestitzeko, oillategi jabeak eta oillasko gizontzera jarrita daudenak, pentsua, lehen bezain merke, eta lehen bezain ona, proteina duena alegia, behar dute. Ortan ez dago dudarik lehen ere marjenak ondo estutuak zuden eta. Beraz pentsu fabrikei pasatzen diete pelota.

Pentsu fabrikek, ordea, pentsua lehen bezain merke eta ona egingo badute, gaiak, kasu ontan soja, lehengo prezioan erosi behar dituzte.

Auek pelota, soja alea Iparrameriketarik ekarri eta olio egiten dutenei pasa diete.

Olio fabrikek, ordea, estaduaren prima bukatu zaienean, eta soja alea garestiagotzatzen asi, ara zer neurri artu zuten: soja irinaren billa pentsu fabriketatik zetozen kamionak, utsik bialdu ostera.

Eta orain dira kontuak.

“48 ordu, bi egun nahikoa dira, pentsu konpuetosa egiten duten fabrikarik gehienak geldi erazteko” zion gobernu ministroei bidaliko eskutitzean, pentsu fabrikaren elkarteko lendakariak.

Pentsu fabrikei eta bide batez oillategi jabeek jarri zitzaion aukera, au izandu zen: batez ala garestiagotzatzen. Ez dizuegu soja iriñik serbituko batere, kamionak utsik itzuliko dira; ala soja, gehiago paga behar diguzue.

A.N.S.A.koek maiatzaren 10ean bildu ziren estu eta larri, eta garestiagotzatzen bederen erostea erabaki zuten lanean jarraitzeko.

Maiatzaren 11an, urrengo egunean beraz, “consejo de ministros” delakoak erabaki au eman zuen.

1973 garrenko urriaren 31 bitarte Españian behar dan aibat soja ekar dezatela kanpotik. Olio fabrikek, pentsu fabrikei 15 peztan saldu dizeatela soja iriña. Ortan kabitzeko behar diran laguntzak, primak eta kredituak emango ditu gobernuak. Arabera ortan, baiña gehiago ez, pentsuak garestitzeko neurriak artuko dira eta kontrolak jarriko.

Orra ba urriaren azkenera arteko arnasbidea eman. Bada emen komeria franko. Aste ontan bialdu didate etxera pentsuen prezio berririkin papera.

### ESNE ONA

Legeak agintzen duenez, esneak % 3'2 proteina eta % 3'1 grasa izan behar ditu gutxienez. Neurri auek aurtengo martxoaren aseratik jarriak dira. Esne zentralak gradu oietako esnea saldu behar dio edaleari.

Zenbait esne zentralak, keja sartu diote gobernuari, ganaduzaleei erosten dieten esnea, ez dala gradu oietara iristen esanez.

Ori dalata gobernuak behiak zer nelako esnea ematen duten jakitea erabaki du. Probintzi bakoitzean mila eta gehiago muestra artuko dituzte eta eskualdeetako laboratorietan analisisak egin.

Muestra artez ori udaberri eta udazkenean egingo da, garaiaren aitzekiarik izan ez dezan. Urtearen bukaerako jakingo da nolako esnea ematen duten behiek eta probintzi batetik bestera alderik badagoen ala ez.

Azterketa au egiteko lau milioi terdi da presupuestoa.

### ITSASOKO URA OILLASKOENTZAT

Chileko Antofagastan ikasi dutenez, itsasoko urez errezagotzatzen lehenago azten dira oillaskoak. Anglo irakasle dan Maria Hinijosak egin du azterketa ori.

Oillasko batzuri ur geza, “edateko” ura eman zuten, eta beste batzuri itsasoko ura iturrikoari nahastuta. Amabi egunen buruan, ur geza besterik edan ez zutenak 1.494 gramo pixatu zituzten; itsasoko ura edan zutenak, berriz, 1.735 gramo.

Pentsua garesti dagoen ontan, guretzat ere ez litzake gaizki etorriko.

Londresen, berriz, Holandatik eramandako oillaskoak saltzea, galerazi egin omen dute, “antibiotikoz” ornitutako pentsua janak zirelako.

Inglaterran debekatua dago antibiotikodun janaria aragitarako animaliei ematea. Izan ere aragi ori jaten duten pertsonen gorputza, ohitu egiten antibiotikoak artzen, eta gero, gaixotu delako botiketan artzen dituenan, ez diote erasa-

ten, ez onik egiten, eta sendatu ezinik geratzen da.

### SOTOSALBOS

Segoviako uriburutik 18 kilometrotara dagoen erri txiki bat da. Itsasotik gora 1.100 m., erriko lurrak luze eta zabal 2.400 hektarea.

Garai batean ganadu asko azten zan lurraldea bada ere, gero eta lur gehiago labrantzarako artu zuten eta ganadua gutxituz joan zan. Azkenaldi ontan ordea, labrantzak ez ziren ematen bizitzeko aibat.

Duela bi urte, 150 behi zeuzkaten errian; baiña behi oiek zaintzeko iru gizon behar zituzten, baita Segoviatik Riázara doan autobidea dutelako erdi erdi lur oiek.

Ganaduak karreterara irten ezker, ez dago gauza onik, arriskua galanta.

Iru artzai oien jornalak egunean 750 peza jotzen zuten, eta behiok ez zuten ematen jornaletarako aña ere. Behi gehiago jarri ezker berriz, gizon gehiago beharko ziran zaintzeko.


Orduan egin dutena auxe izan da: karreteraren bi albotan arantzadun alanbre esia jarri, 20 kilometrotako esia.

Milioitik gora kosta zaie esi ori ailtzatea baiña errian diran 32 familiak elkarturik, danen artean egin dute. Oztoporik aundiena, erriatik joan eta Madriden bizi diran, beste 60 lurjabeekin izan dute, aien lurrak ere tartean baitaude, baiña azkenik lurrok errentan artu dituzte errian gelditzen diranak.

Sei illabete pasa zituzten izkeltzen eta gauzak antolatzen baiña behin erabaki ezker bi illabetean altxa zuten esia.

Lehen 150 behi zituzten, dagonerako badituzte 320 eta iru zezen. Gaiñera beste 70 bigantza eskatuta dituzte eta etorri zai dande. Orain labrantza egiteko partez belar berrira egiten ari dira eta belazeak ongarritzen.

Alanbrezko esi bat ailtzatzek, behi zaitzalleen beharra kendu delako, erri osoa ganadutara jartzeko bidean sartu du.



Azaldu diren aurrerapen guztiak eskuratzea da zerri azleoren afana